Goienka2a

IBARREKO TRIATLOIA ZAPATUAN, EKAINAK 4, JOKATUKO DA

KIROLA: EUSKAL BIZIKLETA ZAPATUAN HELDUKO DA IBARRERA /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005 ekainaren 3a • V. urtea • 202. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

DEBAGOIENA

Kilometroak jaiaren abestia aurkeztuko dute gaur /4

LUIS MARI OIARBIDE

"Bi urte barru ibai guztiak egoera onean egotea espero dugu, eta ur araztegiak martxan" **/6**

BERGARA

San Pedro eta Ariznoa urbanizatzeko proiektua abian da /5

ASTEKO GAIA: SARIKETA DEITU DU DEBA-GARAIAK

Landa arloko proiektu berritzaileak

Debagoieneko lehen sektoreari pizgarria eman nahian, Deba-Garaiak, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteak, II. Ideia eta Proiektu Berritzaileen Sariketa deitu du. Horixe aurkeztekoak ziren elkarte hori eta ibarreko udalak atzo, eguena. Horrekin batera, Lide Olañetak, iazko irabazleak, bere proiektua aurkeztu du, trufa beltzen laborantzaren gainekoa.

Beste ekimen bat ere aurkeztu dute joan den astean, hura Jaurlaritzaren, Aldundiaren eta Mendikoi elkartearen eskutik: Gaztenek, gazteak nekazaritza edo abeltzaintza ekoizpenean kokatzeko eta euren proiektuak bideratzeko egitasmoa. **/2-3**

XABIER URTZELAI

Hildako bost ikasleak omendu dituzte

Mondragon Unibertsitateko ikasle, irakasle eta langileek ekitaldi hunkigarria egin zuten eguaztenean, Arrasaten auto istripuan eta mendian hildako bost oñatiar gazteen omenez. Haritz Azpiazu, Ane Miren Telleria, Amaia Uriarte, Mikel Urtzelai eta Aitor Oñate MUko ikasleak ziren, eta horregatik egin zuten ekitaldia. Milatik gora lagun elkartu ziren Goi Eskola Politekniko pilotalekuan, hildakoen senide eta lagunekin batera, eta, besteak beste, txalapartariak, dantzariak eta bertsolariak izan ziren. Une hunkigarriak bizi izan ziren, batez ere hildako gazteak gogoratzeko bideoa eskaini zutenean **/4**

Autobidearekiko Bidegiren jarrera salatu du Eskoriatzako Udalak

Eibar-Gasteiz autobideko lanen jarraipena egiteko Eskoriatzan sortutako batzordeak salatu egin du autobideko lanen ardura daukan Bidegi erakundearen jarrera. Batzordea udal taldeetako ordezkariek, elizateetako auzo alkateek eta jabe kaltetuek osatzen dute. Batzordea oso haserre dago Bidegirekin. Haren jarrera eskasa salatu dute, eta baita egin dituen akats larriak ere. **/5**

DEBAGOIENA

Bidea itxiko dute San Prudentziotik Oñatirantz

Eibar-Gasteiz autobideko lanak direla-eta, San Prudentzioko bidegurutzean bidea itxi egingo dute zapatuan eta domekan. Errepidearen eta ibaiaren gainetik igarotzen den Oñatiko zubi-bide berriaren azpian zeharkako kolektore bat jarri behar dutelako itxiko dute bidea 07:00etatik 21:00etara bitartean, tandaka.

DEBAGOIENA/4 • HERRIZ HERRI/5 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a

Kimu berriak gure landetan

■ Landa eremuetarako II. Ideia eta Proiektu Berritzaileen sariketa deitu dute

■ Trufa beltzaren laborantzaz azterketa aurkeztu du iazko saridunak, bergarar batek

nolako ikasketak
halako lana

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ARRASATEko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa, Telematika espezialitatea.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa, Telekomunikazio Sistemak espezialitatea.
Bigarren zikloa
• Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
• Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
• Informatikan Ingeniaritza.
• Industri Ingeniaritza.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza.
GOIERRIko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
OÑATIko Campusa
Lehen zikloa
• Zuzendari Idazkaritza.
Ziklo luzea
• Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
- Finantza Zuzendaritza.
- Merkataritza Zuzendaritza.
- Erakundeen Kudeaketa.
BIDASOAko Campusa
• Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
- Nazioarteko Merkataritza.
- Enpresa Logistika eta Garraioa.
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
ESKORIATZAko Campusa
Lehen zikloa
• Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
• Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
• Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
• Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.
Bigarren zikloa
• Psikopedagogian Lizentziatura.
- Hizkuntzen Psikopedagogia.
- Esku-hartze Psikopedagogikoa.
Ziklo luzea
• Giza Zientziak Lizentziatura.
- Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
- Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.
• Ikus-Entzunezko Komunikazioan Lizentziatura.

JARDUNALDI IREKIAK
ARRASATEko Campusa
943 71 21 92
• Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

LEIRE KORTABARRIA

Debagoieneko nekazaritzak bizigarria behar du, gazteen ekimena eta ekintza arlo berriak. Hori guztia uztartzeko, II. Ideia eta Proiektu Berritzaileen Sariketa deitu du Deba-Garaiak, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteak. Atzo, eguena, ziren horren aurkezpena egitekoak, Urkulun, Debagoieneko udal guztietako ordezkariekin. Baina, ideia berriak eskatzeaz gain, ekimen horrek eman du bere lehen fruitua, eta horren berri ere ematekoak ziren atzo. Izan ere, lehenengo deialdiko irabazleak, Lide Olañeta 28 urteko bergararrak, bere proiektua aurkeztu du: trufa beltza lantzeak Debagoienean etorkizunik izan dezakeen aztertu du, eta ikerketa horrek merezi izan zuen lehenengo edizioko saria.

Lehiaketa horrekin, Deba-Garaia elkartearen helburua da ibarreko lehenengo sektoreari pizgarriak eskaintzea, batez ere arlo horretako gazte jendeari. Aurreratu dute urtero deitzen jarraitzeko asmoa dutela, eta iazko erantzuna –zortzi lan aurkeztu ziren– oso ontzat ematen dutela lehen urtea izateko. Gainera, nekazari gazteendako beste proiektu bat ere aurkeztu berri dute, hura EAE osorako: Gaztenek laguntza programa.

Ikusten da erakunde eta sektoreko elkarteek berau sustatzeko ahalegin handiak egiten dituztela. Kontuan hartu behar da baita Debagoieneko nekazaritzaren errealitatea ere: baserri gehienak mistoak dira, hau da, oso familia gutxik dute baserria bizibide nagusi. Lide Olañetak, iazko sariketako irabazleak, adibidez, onartzen du "oso bizimodu gogorra" dela baserrira bakarrik dedikatzea. Hala ere, Lidek berak "oso gustura" eutsiko lioke aukeraren bati, sortuko balitz.

TRUFA BELTZA, AZTERGAI

Lide Olañetaren lan saridunari begiratuta, ikusten da Debagoieneko nekazari gazteek badituztela ideia erakargarriak eta baserria sektore moduan indarberritzeko gogoa. Lideren lana zen *Trufa beltzaren (tuber melanosporum) laborantza Debagoieneko eskualdean*. Sei hilabeteko 3.000 euroko beka irabazi zuen, proposamen horren bideragarritasuna aztertzeko eta ondorioak ateratzeko. Uberako Markiegi Nagusi baserriko alaba horrek onartzen du "trufa beltzarekiko interesa" bazuela lehendik, baina sei hilabete horietan buru-belarri aritu behar izan duela eta gauza berri asko ikasi dituela. Ikerketa oso sakona egin du: Kataluniako eta Nafarroako laborariekin berba egin eta Nafarroako trufagintza bertatik bertara ezagutu zuen. Trufaren laborantza baldintzak aztertu zituen lehenengo; gero, Debagoieneko baldintzak. Haren ondorioa hauxe da: "Debagoienean landatzeko aukera egon badago, baina oso

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK
ARRASATE TEL.: 943 712 425 FAXA: 943 712 297
ARETXABALETA TEL.: 943 712 411 FAXA: 943 712 004
OÑATE TEL.: 943 718 080 FAXA: 943 718 045
SEIN
grupo•taldea
Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

LEIRE KORTABARRIA

Lide Olañeta bergararrak irabazi du I. Ideia eta Proiektu Berritzaileen Sariketa. Argazkian, Markiegi Nagusi baserri inguruan.

Deba-Garaia landa garapen elkartearen helburua da sariketa urtero antolatzea

Nekazari gazteak produkzioan ezartzeko laguntza plan bat abian dago Debagoienean

Erakunde eta elkarteek gero eta pizgarri gehiago eskaintzen dituzte lehen sektorerako

zaila da. Baldintza batzuk behar dira, eta, horiek guztiak beteta ere, ez dago ondo irtengo den garantiarik". Hala ere, ezer gomendatu beharko balu, "lehenengo proba bat egitea" gomendatuko luke Lidek.

Kontua da trufa beltza oso errentagarria dela: Lidek dioskunez, kilo baten ohiko salneurria 300-400 euro da. Uberatar gazte horrek gaineratzen duenez, Debagoienean trufa beltzak landatzeko eta hori ekonomia-aktibitate bihurtzeko modua balego, "hemengo baserriendako oso ona" izango litzateke. Bigarren onura bat ere izango luke: trufak zuhaitz-sustraietan hazten diren onddoak dira, eta zuhaitz horietako bat da haritza. Hortaz, haritzak landatuko lirateke eta "bertako zuhaitzak izango genituzke berriro", dio Lidek.

Zoritxarrez, gurean ez dira baldintza onenak ematen, eta batzuk ezin dira kontrolatu: adibidez, trufek euri kopuru orekatua behar dute urte osoan. Gainera, edozein zuhaitzek ez du balio; ezta edozein lur motak ere: kare-lurrak onak dira, eta Udalatx edo Arantzazu inguruak, adibidez, aipatzen ditu Lidek.

Horrez gain, errentagarritasuna epe luzera da: 10 urteren buruan hasten da zuhaitza trufak ematen. Horrek jendea "beldurtuko" luke beharbada, Lideren iritziz.

"OSO INIZIATIBA ONA"

Ideia berritzaileen bigarren edizioak emango duena ikusteke dago. Oraingoz, ez dago erabakita Olañetaren ikerketarekin ezer gehiago egingo den edo ez. Hark diosku "oso polita" izango litzatekeela etorkizun baten trufa beltzaren gaineko "esperientzia pilotu" bat egitea Euskal Herrian. Bestalde, saridunak begi onez ikusten du ideia berritzaileen lehiaketa: "Oso iniziatiba onak dira nekazari gazteendako, eta jendea ideiak lantzera eta aurkeztera animatzeko".

Sariketako oinarriak

Hauek dira II. Ideia eta Proiektu Berritzaileen Sariketako oinarriak: Debagoienean egiteko moduko proiektua, eta orain arte egin gabekoa; eta txosten bat aurkeztea. Gai posibleak, hauek: ohiko produkzio joeretan oinarrituta, aldaketak edo balio erantsia ematen duten ekimenak; ohiko ekoizpenetatik kanpo, nekazaritzan egin daitezkeen ekimenak; eta ingurumenean egin daitezkeen ekimenak. Irabazleak 1.000 euro eta 3.000 euroko beka jasoko ditu. Xehetasun gehiagorako, jo Deba-Garaia elkartera, Bergarako nekazaritza bulegoan (Urteaga 23) edo deitu 943 76 25 47 telefonora.

Gaztenek nekazaritza plana, gurean ere bai

Gaztenek gazteendako nekazaritza plana lehen sektorera dedikatu gura dutenei inoizko laguntza sorta aberatsena emateko jaio da. Eusko Jaurlaritzak, EAEko aldundiek eta Mendikoik antolatu dute. Ekimen hori aurkeztu zuen joan den martitzenean, Bergaran, Jesus Calvillo Mendikoiko Gipuzkoako arduradunak. Debagoiendarrek badute horretarako izena emateko aukera.

Lehen ere bazeuden nekazari gazteendako laguntzak, baina Gaztenek programak horiek bateratzen ditu eta beste berri batzuk gehitu. Lehen sektorean produkziora dedikatu gura duten 40 urtetik beherakoei euren enpresa ideiak bideratzen laguntzen die. Bost motatako neurriak daude: proiektuendako aholkularitza eta jarraipena; lehenengo instalazioendako laguntzak; lurra lortzeko bitartekaritza; nekazari inguruan bizi-kalitatea hobetzeko neurriak; eta beste neurri osagarri batzuk.

HELBURUA, ENPRESA BIDERAGARRIA

Prozedura honakoa da: gazteak Nekazari Gaztearen Bulegora zuzendu behar du (Debagoieneko kasuan, Bergarako nekazaritza bulegoan) eta bere proiektuaren berri eman. Hori baloratu ondoren, hiru aukerotako bat ezartzen zaio: proiektua oso garatua badago, tutoretza zerbitzua; idatzi gabe badago, begirale baten laguntza hori egin dezan; edo, ideia sortu berri bada, formazioa. Azken helburua da enpresa plan horrendako dirulaguntzak lortu eta enpresa bideragarria egitea. Calvillok ohartarazi zuen prozesua "konplexua" izan daitekeela, baina ona dela plan hori azkenean gauzatu izana.

Honako telefonoetara deitu daiteke: 943 76 58 07 (ibarreko nekazaritza bulegoa) edo 901 44 00 44 (Gaztenek).

LEIRE KORTABARRIA

Jesus Calvillo Mendikoiko kideak aurkeztu zuen egitasmoa Debagoienean.

Lehengo neurriak bateratu eta berri batzuk eskaintzen ditu Gaztenek-ek

Interesa dutenek nekazaritza bulegora jo behar dute, Bergaran

Aita Santuaren aitormena jasoko dute Arantzazun MCCren sortzaileek

Ekainaren 18ko ekitaldian agiria eta zilarrezko domina emango dizkiete

IRATI AGIRREAZALDEGI

Eliza Katolikoak erabaki du Mondragon Kooperatiben Mugimenduaren sortzaileei San Silbestre aita santuaren agiria eta zilarrezko domina ematea. Aitormen ekitaldia datorren ekainaren 18an izango da, Arantzazun.

GOIENKARIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere aurten omendu ditu sortzaileak.

Aitormena Aita Santuak kooperatiben egitasmoa sortu eta garatu zutenei egin die. Kooperatibak kristau izateari erantzunez egindako proiektu jo dituzte: "Giza eta elkarte duintasunaren zerbitzura jarriz, ebanjelioaren balioak lan eta enpresa alorrean gauzatu ahal izan dira", esan dute.

Hau da Aita Santu batek gisa horretako aitormena gipuzkoar laiko kristauei ematen dien lehen aldia, "euren fedeak eraginda eta Elizaren doktrina soziala gauzatu nahirik, arlo laboralean bai Gipuzkoan bai Euskal Herrian egin duten ahaleginagatik".

KRISTAU BALIOAK KOOPERATIBAN

Batzorde eragile batek Egoitza Santura jo zuen aitormenaren eske, Jose Maria Setien Donostiako gotzain zenaren bitartez. "Hainbat gipuzkoar eta euskaldunen bizi baldintzak hobetzeko Mondragon taldearen sortzaileek beren onena ematen saiatu ziren eta Jainkoarengan zuten sinesmena eta kristau balioekiko uste ona kooperatiben egitasmoan gauzatu zuten", esan zuten aitormen hori eskatzeko orduan.

Donostiako Gotzaindegitik jaso dugun idatzi batek zera dio: "Horrela goraipatzen da Arrasateko Kooperatiben Mugimendua asmatuz, abian jarriz eta garatuz Elizaren ekonomia eta enpresa arloko doktrina soziala gaurko kulturan txertatu dutela lau omenduek".

Kristau balioak kooperatiben egitasmoan gauzatzea eskertu nahi izan dute

EKITALDIA ARANTZAZUN

Aitormen ekitaldia ekainaren 18an izango da, Arantzazun. 11:00etan eukaristia ospakizuna egingo dute basilikan eta 12:15ean, agiriak eta dominak emango dituzte Gandiaga Topagunea eraikinean. Uriarte Donostiako gotzaina izango da ekitaldiaren buru, Setien lagun duela.

Aitormena jasoko dute Alfonso Gorroñogoitia eta Jose Maria Ormaetxea sortzaileek eta hildako Luis Usatorre eta Jesus Larrañaga fundatzaileen izenean, euren alargun Pureza Arantzabalek eta Carmen Galdosek. Horrela, San Silbestre aita santuaren ordenako komendatore eta dama izendatuko dituzte.

DEBAGOIENEAN LABUR

Kilometroak jaiaren abestia Arrasateko Amaia antzokian aurkeztuko dute gaur

Arizmendi ikastolak gaur aurkeztuko du Kilometroak jairako prestatu duen abestia. Amaia antzokian izango da aurkezpen ekitaldia, 19:30ean. Bertan, irakasle, ikasle, guraso eta aktore profesionalek hartuko dute parte. Jon Sarasuak idatzi du OIA izenburua duen abestia, eta "soinu jolas bat da", egilearen hitzetan. Hizki horien esanahia jakin nahi duenak ekitaldira joan beharko du.

Naziotasun eguna ospatuko du Bai Euskal Herriari Ekimenak Zestoan ekainaren 12an

Besteak beste, EHNA txartelak tramitatzen dituen Bai Euskal Herriari ekimenak jaia ospatuko du datorren domekan, ekainaren 12an, Zestoan. Aurtengo Naziotasun Egunerako leloa izango da *Euskal Herriaren izEHNA eta izana*. Hainbat ekitaldi antolatuko dituzte egunean zehar: mendi ibilaldia, artisau erakusketa, pilota partiduak, umeendako jolasak, herri bazkaria, musika kontzertua...

Marixol Iparragirrek bi aste eta erdi daramatza gose greban Mureteko kartzelan

Frantziako Muret-Seysses espetxean dago preso Marixol Iparragirre. Joan zen maiatzaren 17a ezkero gose greban da, bere senideek bisitaren ostean izandako istripua salatzeko eta Muret-Seyssesko bizi baldintzak hobetu daitezen eskatzeko.

Omenaldi hunkigarria MUko bost ikasleei

Mondragon Unibertsitatean elkartu ziren atzo milatik gora lagun, auto eta mendi istripuan hildako bost ikasle oñatiarren omenaldian. Haritz Azpiazu, Ane Miren Telleria, Amaia Uriarte, Mikel Urtzelai eta Aitor Oñateren senide, lagun, irakasle eta ikaskideak han izan ziren. Txalaparta, bertso, hitzaldi, bideo emanaldi eta dantzaren ostean, Oñatiko abesbatzak bi kantu abestu zituen hildakoen omenez landatutako zuhaitzaren alboan. Ondoren, senideei oroigarri bana eman zieten. /I.A.

Epeleko araztegiaren proiektua eta obrak egiteko lehiaketa abian da

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ingurumen Ministerioak lehiaketa publikoa deitu du, aukeratzeko hondakin urak jasoko dituen Epeleko araztegiaren proiektua eta obrak egingo dituen enpresa.

Aurreikusi dute 32 milioi eurokoa izango dela aurrekontua eta araztegia egiteko lau urte beharko direla; izan ere, Ministerioaren esanetan, "obra konplexua" da.

IBARREKO BOST HERRI

Epeleko araztegiak ibarreko bost herriri eskainiko die zerbitzua: Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Oñatiri.

Araztegi horrek jasoko ditu 107.500 biztanlek sortutako hondakin urak. Araztegiaz gain, Zubillagatik kolektore bat egiteko asmoa ere badute.

Bestalde, aurreikusi dute desbideratzea GI-627 errepidea 350 metrotan eta baita Deba ibaiaren ubidea ere 100 metrotan, araztegiaren kokalekuan.

CLINICA DENTAL
BERGARA

- Odontologia orokorra
- **Inplanteak**
- **Protesiak**
- Hortz-estetika
- **Periodontzia**

FINANTZAKETA:
3 HILABETE ETA 5 URTE ARTEKOA

ASEGURUAK

Ipresa	La Previsora
Sanitas	Aegón
DKV/Previasa	Asepeyo
Asisa	Fraternidad
Azkaran	Fremap
Previsora Bilbaina	Adeslas
Pakea	Allianz
Grupo Eroski	

RPS 99/94

Bidekurutzeta 36, behea BERGARA 943 76 05 77

ANTZUOLA

‘Zinea izarpean’ programa gaur, egubakoitza, jarriko dute abian

Ekainean eta uztailean sei film ikusteko aukera izango dugu, *Zinea izarpean* programaren barruan. Gaur, egubakoitza, eskainiko dute lehenengoa: *Los increibles*. Gainerako bostak dira *Mar adentro*, *El lobo*, *Alejandro Magno*, *Los chicos del coro* eta *Amelie*. Egubakoitzetan, frontoi txikian, 22:30ean izango dira emanaldiak.

Programa horren helburua da herrian dagoen kultura eskaintza zabaltzea eta uda parteko gauetan ekimen ezberdin baterako aukera eskaintzea herritarrei. /AINTZANE IRIZAR

JULEN IRIONDO

OÑATI

Gau musikala antolatu dute zapaturako Larrain Gain elkartean

Juan Carlos Irizar pianojolea eta Karmelo Mendizabal soinujolea gonbidatu dituzte Larrain Gain elkartera, eta terraza giroko gau musikala eskainiko dute bihar, zapatua, bertara joaten diren guztiendako. Kontzertua elkarteko terrazan izango da eta hango bazkideak izango dira zerbitzariak. Gau musikal berezi hori 22:00etan izango da, eta nahi duten guztiendako tokia dago.

Larrain Gain elkarteak 25 urte beteko ditu aurten eta urteurrena ospatzeko antolatu dituen ekitaldietako bat da kontzertua. /O.E.

ESKORIATZA

Bidegiren jarrera salatu du autobidearen jarraipen taldeak

Urtebete baino gehiago da herrian autobideko lanen jarraipena egiteko batzordea sortu zutela. Batzordea udal taldeetako ordezkariek, elizateetako auzo alkateek eta jabe kaltetuek osatzen dute. Eguaztenean prentsaurrekoa egin zuten udaletxean, egindako lana eta aurkeztutako alegazioak aditzera emateko. Horren gaineko txostena etxez etxe banatuko dute. Batzordea oso haserre dago Bidegirekin. Lanen ardura duen Aldundiko erakundearen jarrera eskasa salatu dute, eta baita egin dituen akats larriak ere. Horrez gain, Juan Carlos Bengoa alkateak gezurtatu egin zuen bosgarren zabortegi bat egingo duten zurrumurrua, eta Eskoriatzako lotunea Ederlan inguruan izango dela argitu zuen. Horrekin batera, batzordeak herritarren esku-hartzea goraipatu zuen. /I.B.

ARAMAIO

Jaiak antolatzen dabiltza buru-belarri herriko gazteak

Iaz bezala, aurten ere Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada dabil San Martin jaiak antolatzen. Uztailaren 1etik 4ra ospatuko dituzte. Hilabete eskas falta da eta gazteek esan digute buru-belarri dabiltzala antolaketa lanak egiten. Esaterako, San Martin Eskolako ikasleei eskatu diete kartel iragarlea egiteko, eta haiek hasi dira lanak entregatzen eskolan. Gainerako ekitaldiei dagokienez, nondik norako gehienak erabakita dituzten arren, ekitaldi asko lotzen dabiltza. Udalak 21.000 euro emango dizkie. /U.M.

ARRASATE

Elkartasun Eguna egingo dute bihar, goizean hasi eta iluntzera arte

Gobernuz kanpoko herriko zenbait erakundek bultzatutako ekimena da Elkartasun Eguna: Mugarik Gabeko Ingeniariak, Harreman, Serso San Viator, Nubi eta Activos Por Un Mundo Solidario.

Urtetan isilpean eta musu-truk egiten dabiltzan lana herritarrei helaraztea da egun horren helburuetako bat, behartsuenekiko elkartasuna eta sentsibilizazioa piztu eta bultzatzeko. Horretan laguntzeko, bestelako GKE batzuk ere izango dira Arrasaten, euren proiektuen berri ematen: Amnistia Internationala, Komite Internazionalistak, Medicus Mundi, Intermon…

ZER ETA NON

Hala, Seber Altube plazan izango dira guztiak. Elkartasun Eguna 11:00etan hasiko da, 20:00ak arte. Lehen esandako erakundeen proiektuez gainera, Arizmendiko eta Mesedeetako zenbait ikaslek ikasturtean egindako lanak aurkeztuko dituzte. Horrez gainera, umeendako jolasak ere izango dira plazan; bidezko merkataritzako produktuak, Saharakoak eta besteak beste, Indiako Ankur proiekturako (umezurztegi baterako) dirua batzeko tonbola ere bai. Tonbolarako produktuak Ibai Arte merkatari elkarteak emandakoak dira.

MUSIKA GOIZ ETA ARRATSALDEZ

Hori guztiori girotzen, berriz, goizean Gasteizko Kalimba Musika eta Elkartasuna taldeak joko du eta arratsaldean, Djambore perkusio taldeak. /U.M.

Zertzelada

Seber Altube plazan egingo dute Elkartasun Eguna; 11:00etan hasiko da eta, besteak beste, tonbola izango da, Ibai Arteren produktuekin

BERGARA

San Pedro kalea eta Ariznoa urbanizatzeko proiektua abian da

San Pedro kaleko eta Ariznoa plazako urbanizazioko lanen proiektu teknikoa lantzea onartu du Udalbatzak. Ariznoako eta San Pedro kaleko urbanizazio proiektuek 29.000 eta 25.700 euroko aurrekontua dute, hurrenez hurren.

Hala ere, oraindik ez dago aurreikusitako gastuari aurre egiteko diru izendapen nahikorik. Edozein modutan, urbanizazioko lanen proiektu teknikoa adjudikatzeko lehiaketa deitu du Udalak. Bien bitartean, lanak finantzatu ahal izateko aukerak aztertuko ditu. Besteak beste, galtzada-harria bistan lagako dute etorkizunean San Pedro kalean zein Ariznoa plazaren inguruan. /E.M.

E.M.

Uztailaren 29rako proiektu teknikoa esku artean izan nahi du Udalak.

ARETXABALETA

Nazio Batuen Erakundeak Kepa Urraren tortura salaketa onartu du

Nazio Batuen Erakundeko Torturaren Aurkako Batzordeak Kepa Urra aretxabaletarrak jasandako torturen gaineko adierazpena egin du. Torturak jasan zituen Kepak 1992an Guardia Zibilak atxilotu zuenean. Hori salatu eta hiru goardia zibil zigortu zituzten. Zigorrak, baina, ez zituzten osorik bete Justizia Ministerioak indultua eman zielako. Salaketa jarri zuten orduan Nazio Batuen Erakundean, eta adierazpena egin du orain: Estatuak tortura kasuak zigortu behar ditu eta ez du bete; indultuak, gainera, errepikatzea eragin dezake. /M.A.

ELGETA

Hiru eta sei urte arteko umeendako aisialdi programa jarriko dute abian

Udalak 3 eta 6 urte bitarteko umeendako aisialdi programa ipiniko du abian. Ekainaren 27tik uztailaren 29ra bitartean izango da, eta programa diseinatzeko eta betetzeko bi begirale behar dira. Aisialdiko begirale titulua edukitzea, aisialdiko programetan jarduna izatea, irakasle ikasketak eginda izatea edo egiten jardutea dira baldintzak. Ekainaren 15a baino lehen eman behar da izena Udal Kirol Zerbitzuan (943 76 80 22). Horretarako, jardueren gaineko programa aurkeztu behar da. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

Hasi dira KZGunea Garro jauregitik lekuz aldatzeko lanak egiten

Garro jauregian egon da orain arte Gatzagako KZGunea, baina leku aproposa ez denez, lekuz aldatzea erabaki dute. KZGunearekin batera egon dira ludoteka eta liburutegia, eta herriko hainbat taldek ere bertan egiten dituzte batzarrak. Hala, hasi dira lekuz aldatzeko lanak egiten.

GUREL-EKOAK, BERMEORA

Gurasoen Elkarteko 20 lagun inguruk Bermeon egingo dute asteburua. 18:00ak aldera irtengo dira gaur, domeka ilunkeran itzultzeko. /X.U.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a

Garapen iraunkorreko diputatua da Luis Maria Oiarbide. Gipuzkoarron aztarna ekologikoaren txostena aurkeztu dute egun hauetan, baina horretaz gain, erraustegiaz, AHTz, araztegiez eta bidegorriez ere galdetu diogu.

GOIENKARIA

Luis Maria Oiarbide

GARAPEN IRAUNKORRERAKO DIPUTATUA

"Zaborra desagerrarazteko dauden sistema guztiak parekoak dira gaixotasunekiko"

GIPUZKOAKO IBAIAK ETA UR ARAZTEGIAK

"2007rako ibai guztiak egoera onean egotea espero dugu eta ur araztegiak martxan; Epelekoa egiteko lizitazioa atera dute eta Bergarakoa egiteko ere laster egongo da enkantean"

GIPUZKOARRON AZTARNA EKOLOGIKOA

"Dugun maila sozio-ekonomikoa oso altua da eta, beraz, kontsumitzeko ahalmena ere bai; dagokiguna baino hiru aldiz gehiago kontsumitzen dugu, eta martxa gelditu behar dugu"

OIHANA ELORTZA

Zer esan nahi du gipuzkoarron aztarna ekologikoa 5,3 hektarea dela?

Gipuzkoar bakoitzak 5,3 hektarea behar ditugula gure kontsumoa asetzeko eta sortzen dugun zaborrari irtenbidea emateko. Dagozkigun baliabideak baino hiru aldiz gehiago kontsumitzen ditugula, alegia. Lehen postuan gaude.

Zergatik dugu horrenbeste kontsumitu beharra?

Bizi dugun modu sozio-ekonomikoak du errua: ekonomikoki oso garatua dagoen gizartean bizi gara, zerbitzu asko dituen gizartean, eta lehen balio handia zuten gauzak ohikoak eta arruntak dira gaur guretako. Gipuzkoarron bataz besteko maila sozio-ekonomikoa oso altua da eta beraz, kontsumitzeko ahalmena ere bai.

Gizarte oso garatua eta industrializatua garen heinean, gizarte kontsumitzailea ere bagara eta askotan ez gara ohartzen egiten ditugun gehiegikeriez. Bakoitzak uste dugu kontsumitzen duguna ez dela asko, beti dagoela beste norbait guk baino askoz gehiago kontsumitzen duena.

Ze adierazle erabili dituzue emaitza horiek jakiteko?

Mundu guztian erabiltzen den sistema normalizatu bat erabili dugu. Sei taldetan banatzen diren elementu ezberdinak hartu ditugu kontuan: jateko behar ditugun elikagaiak landatzeko behar den gainazala, animaliek bazkatzeko behar duten lurzorua, botatzen dugun CO2 hartzeko beharrezkoa den basoaren tamaina, itsasoaren ekarpenarekin ere berdin, eta azkenik, eraikitako lurzorua eta energia-gainazala. Azken finean, formula matematiko batek ematen du aztarna ekologikoaren emaitza, eta horren arabera, 1,8 hektarea behar ditu lurreko biztanle bakoitzak. Eta pentsa, Gipuzkoakoak 5,3 kontsumitzen ditu. Gainera, kalkulu horiek gizaki bakoitzaren kalkuluak dira, baina lurrean bizia duten beste izaki batzuk ere bizi dira.

Nola geldi dezakegu martxa hau?

Neurri batzuk instituzioek hartu behar dituzte eta beste batzuk, hiritarrok. Adibidez, dendetan hartzen ditugun plastikozko poltsa kopurua gutxitzen, autoak erabili ordez garraio publikoa erabiltzen edo aire girotuaren erabilera zainduz.

Dugun bizimodura ohituta egonez gero, ordea, zaila da konturatzea gehiegi kontsumitzen dugula.

Beti pentsatzen dugu gure kontsumoa ez dela handia. Joan den urtean, adibidez, sorpresa hartu genuen. Jaurlaritzak urtero egiten ditu neurketak jakiteko zenbat gas, ke edo produktu isurtzen dugun. Denok pentsatzen genuen isuri gehiago egonez gero, industriek, enpresek euren isuria gehitu zutelako izango zela. Datuek erakutsi zuten, ordea, industriek %15 jaitsi zutela isuria eta berogailua eta autoak zirela igoeraren errudunak.

Herri guztietan dago martxan Tokiko Agenda 21 programa?

Ia guztietan. Berez, planak jasotzen du 2006an 5.000 biztanle baino gehiago dituzten herri guztiak Agenda 21 programan sartuta egotea. Gipuzkoan, une honetan, biztanleriaren %98 bizi den esparruan dago martxan eta urtea bukatu baino lehen herri guztietan egongo da.

Noiz ikusiko ditugu emaitzak?

Iraunkortasunarekin zerikusia duen edozein proiektu epe luzekoa da, baita Tokiko Agenda 21 ere.

Erabakita dago Txingudin eta Aritzetan egingo dituztela erraustegiak?

Hori da orain arte erabaki dena, bai. Txingudikoa egitea eurek erabaki zuten duela urte pare bat. Dagoeneko badute Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren baimena lanak hasteko eta ziurrenez aurten bertan aterako dute obren lizitazioa. Aritzetako errausketa plantaren inguruan, berriz, joan den uztailean erabaki zuten mankomunitate guztiek, eta harrezkero ez da erabakia aldatu. Diputazioa mankomunitateen eskura jarri da.

San Marcosko zabortegia 2006an itxiko ei dute. Aritzetako erraustegia ordurako egingo dute?

Batzuek diote 2009 arte egongo dela zabortegi hori zabalik. Azken bi hilabete hauetan, ordea, inguruko herrietako osoko bilkurek 2006an ixteko eskatu dute. Bestalde, hiruzpalau urte pasako dira Aritzetako errausketaren obrak hasten direnetik instalazioa bera lanean hasten denera. Bitartean zaborrarekin zer gertatuko den San Marcosko Mankomunitateari galdetu beharko zaio.

Erraustegia da zaborrei irtenbidea emateko bide bakarra?

Ixteko bi sistema daude: errausketa eta zabortegia, bakoitzak ematen dituen aukerekin. Biometanizazioa ere planteatu dute alternatiba moduan, baina horrek zabor organikoa erretzeko balio du soilik. Dena dela, sistema horrek uzten dituen hondakinak erraustegiara edo zabortegira eraman behar dira gero.

Zaborrak erraustegiara eramateko erabakia hartu da Gipuzkoan. Era horretan, zaborraren %97 erre egingo da eta %3 soilik eramango da zabortegietara. Kontrako aldera, 30-50 hektareako beste zortzi bederatzi zabortegi behar genituzke, eta Gipuzkoan dugun arazoetako bat lurzoru falta da.

Nolakoa izango da errausketa planta hori teknologikoki?

Gaur egungoak oso sofistikatuak dira tenperatura eta isurien kontrola neurtzen. Bestela, nahiko sistema sinplea da: lehen etxeko ekonomiketan erretzen zuten eguneko zaborra; errausketa plantak ere horixe egingo du, baina tenperatura eta kanpora botatzen duen isuria kontrolatuta.

Kutsadura sortuko du isuriak?

Gipuzkoan zaborrak erretzearen aurka dagoen lagun batek esan zuen Kursaalean egindako jardunaldi batzuetan, Iberdrolak elektrizitatea sortzeko ikatza erabiltzen duen Pasaiako plantan Gipuzkoako tamaina duten 1.600 errausketa instalazioek adina kutsatzen duela.

Izan ditzakeen osasun arriskuak aztertu dituzue?

Osakidetzarekin hitz egin dugu eta baita errausketa plantak dauden beste herrietako osasun sailekin eta Osasunerako Mundu Erakundearekin ere. Hiru erakundeek eman diguten informazioak dio Europako arauek jasotzen dutena: zaborra desagerrarazteko erabiltzen diren sistema guztiak parekoak dira gaixotasunekiko. Debagoienean, adibidez, urtetan erre dute zaborra Arrasateko zabortegian inolako kontrolik gabe, eta ez dut uste inguruan bizi zaretenok gainerakoek baino osasun arazo gehiago duzuenik.

Abiadura Handiko Trena bateragarria da garapen iraunkorrarekin?

Tamaina horretako proiektu batek beti egingo du inpaktua ingurumenean, baina inpaktu horiek baloratzerakoan, iraupenaren zikloari begiratu behar zaio, ez obrari berari. Adibidez, trenbide batek autobide batek baino inpaktu handiagoa izango du, baina 20-30 urte barru, trenbide horrek errepideak baino askoz gutxiago kutsatzen duen sistema elektrikoaren bitartez garraiatuko ditu merkantzia eta bidaiariak. Bestetik, errepideetatik autoak kendu nahi baditugu, errepidea bezain eraginkorra den bidea behar dugu.

Zer moduz dago ur araztegien gaia?

Ondo, ezarritako epeak betetzen ari gara. 2007rako Gipuzkoako ibai guztiak egoera onean egotea espero dugu eta araztegiak ere martxan egotea. Estatuak Epelekoa egiteko lanak lizitaziora atera dituela uste dut eta Bergarakoa, berriz, aurten ez bada datorren urtean aterako da.

Tranbiak kenduko digu bidegorria?

Ez, batera egingo ditugu. Gipuzkoako errepide mapa dugun bezala, bidegorri mapa izango dugu laster. Hainbat eskualde batuko ditu eta asmoa da aisialdirako ez ezik, garraio gisa ere erabiltzea.

KIA MOTORS

KIA SPORTAGE Gasolina/Diesel
18.300 eurotik aurrera*

KIA RIO 1.3
9.300 eurotik aurrera*

KIA CERATO Gasolina/Diesel
11.300 eurotik aurrera*

ESKAINTZA BEREZIA
Km 0 ibilgailuetan**

KIA PICANTO 1.0 / 1.1
7.300 eurotik aurrera*

KIA CARNIVAL Gasolina/Diesel
19.300 eurotik aurrera*

KIA OPIRUS V6
29.300 eurotik aurrera*

KIA SORENTO Gasolina/Diesel
24.300 eurotik aurrera*

KIA MAGENTIS 2.0
17.300 eurotik aurrera*

KIA CARENS Gasolina/Diesel
14.300 eurotik aurrera*

Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala
Erakusketa eta tailerra

TECNOCAR GIPUZKOA
Araba etorbidea z/g – Arrasate – 943 79 22 67 – Faxa: 943 71 27 38

Adi!
- **3** urteko garantia
- **0 km** aukera bereziak

HONDA
The Power of Dreams

HONDA JAZZ 1.2 / 1.4
11.300 eurotik aurrera*

HONDA ACCORD Gasoli./Dies.
22.100 eurotik aurrera*

ESKAINTZA BEREZIA
HONDA CIVIC gama osoan**
Auto berriak eta 0 km

DESKONTU SINESTEZINAK
0 km ibilgailuek,
3.000 eurorainoko deskontua!

HONDA CIVIC (5 ate) Gasoli./Dies.
15.300 eurotik aurrera*

HONDA CRV
27.300 eurotik aurrera*

HONDA CIVIC (3 ate) Gasoli./Dies.
13.300 eurotik aurrera*

HONDA FRV
20.600 eurotik aurrera*

*Prever plana barne. **Ekainean eta uztailean balioko du eskaintza honek.

Gutunak

Bazterketaz

Maiatzaren 18an prentsaurreko bidez salatu zuten bailarako herri plataformek beste hainbat alderdik baztertu egin genituela, hiltegia pribatizatzearen aldeko proposamenik udaletan ez genuela onartuko adierazteko egindako prentsaurreko bateratuan.

Bailarako herritarrei gure aldetik ez dela inolako bazterketarik gertatu jakinarazi gura diegu. Hona xehetasunak:

1. Prentsaurrekoa egiteko erabakia hartu zen bilera Ezker Batuak-ek konbokatu eta beste alderdi batzuetako eta Hiltegia Bizirik plataformako kideekin batera gonbidatuta joan ginen.

2. Bilera horretan prentsaurreko bateratua egitea erabaki zenean, Aralarko ordezkariak falta ziren alderdiei, eta bereziki Herri Plataformei, gonbita luzatu behar zitzaiela adierazi zuen. Horren aurrean, PSE-EE eta PP alderdiko ordezkariek, gure jarrera ulertu arren, haiek ez zutela plataformen ordezkariekin batera parte hartuko erantzun zuten. Horren ostean, Aralarrek hiltegia zerbitzu publiko gisa mantentzeko jarreran bat egiten duten guztiekin modu bateratuan eragiteko asmoa zuela berretsi zuen, eta, indarrak batzeko helburuz, behar izanez gero prentsaurreko bat baino gehiago egiteko ere prest agertu ginen.

3. Asteartean hartu zen erabakia eta hurrengo egunean ipini ginen harremanetan herri plataformetako ordezkariekin. Aralarko ordezkariok bailarako bi herri plataformatako ordezkariei luzatu genien prentsaurrekoan parte hartzeko proposamena eta baita haietako bati bertarako prestatu genuen testu zirriborroa pasa ere, haien ekarpen edo iritzia bildu asmoz.

4. Ez genuen erantzunik jaso, ez testuari buruz eta ezta haien parte-hartzeari buruz ere, harik eta prentsa bitartez haien bazterketa salatzen zutela jakin genuen arte.

Elkarlanerako eskua luzatzeak jarraituko du izaten gure jarrera.

ARALAR
Debagoiena

Euskaraz, bizi-bizi!

Maiatzaren 16-21 bitartean, Euskararen Astea ospatu genuen Aretxabaletan, Loramendi Euskara Elkartekook antolatuta. Euskalkiari buruzko eta euskararen kalitateari buruzko hitzaldiek, euskara "senzilloa" umorez aldarrikatzen zuen antzerki bikain hark, eta euskararen etorkizuna gaitzat izan zuen mahai-inguruak jantzi zuten aste bitartea. Eta zapatuan izan zen egun handia, euskararena.

Ez dugu esango dena perfektu irten zenik, ez horixe, beti baitago zer hobetu, baina Euskararen Astea antolatuz egin genuen apustuaz gustura geratu ginen. Urte osoan euskara elkartean egiten dugun lana islatu nahi genuen, euskarari aste berezi bat eskaintzea. Egia da urteko egun guztiek euskararen egun izan beharko luketela, geuk gure hizkuntzaren erabilera aldarrikatuz, omenalditxo bat eskaini nahi izan genion: "Niaz, zuaz, euskaraz!". Bai, horixe! Eta aste guztian izan ziren ekintza desberdinetan parte hartu zenuten guztiok egin zenuten bat gure xedearekin.

Prestakuntzetan lagundu zenuten guztiei, Euskararen Astearen berri zabaldu zenutenei, kanpai joleari, babak eta kafea prestatzen aritu zinetenoi, bazkariko mahaiak muntatzen ibili zirenei, erratz jaurtiketan, aulki jokoan eta sokatiran parte hartu zenutenoi... Gazte Ekimeneko martxosoei, erakusketak jarri zenituztenei..., eta festa herrikoi honi umorea eta kolorea, bizitza eman zenioten bakoitzari, gure eskerrik bero eta zintzoena.

Herritarren artean prestatu eta gozatutako jaia izan zen, euskararen osasunera egindako festa, bertokoa. Eta hori egon zen parte-hartze paregabeak berresten du.

Datorren urtean berriz ere antolatuko dugu Euskararen Astea, are hobea, eta datorren urtean ere, gogo berekin ikusi nahi zaituztegu parte hartzen. Eta bitartean, hauxe Loramenditik luzatzen dizuegun mezua: euskaraz bizi!

LORAMENDI EUSKARA ELKARTEA
Aretxabaleta

Eskubide zibil eta politikoen alde: no apartheid!

Bi urte igaro dira, maiatzaren 25ean baldintza zailenetan Oñatin ia 1.600 bozka baliogabetu jaso genituela. Baina bi urte pasa ondoren agerian geratu da bozka horiek guztiek legez kanporaketen politika antidemokratikoari aurre egiteko balio handia zeukatela.

Klase politikoak begietan zapi bat jar dezake, baina horrek ez du esan nahi gaua denik, eguzkirik ez dagoenik. Egun, PP izan ezik, alderdi guztiek, ñabardurak ñabardura, legez kanporaketen estrategiak eta neurriek porrot egin dutela aitortzen dute. Apirilaren 17ko hauteskunde autonomikoen emaitzak dira horren lekuko. Baina hori ez da nahikoa. Zapia begietatik kentzeko garaia da. Ezker abertzalea ez da desagertu eta ez da desagertuko. Baina urrats berriak emateko prest dagoela ez izan inolako zalantzarik.

Klase politikoen aldetik hitz politak entzun ditugu, baina konpromisorik ez. Batzuek diote hurrengo udal hauteskundeetan aukera politiko guztiak presente egon daitezen urratsak eman behar direla. Ados gaude. Baina bitartean? Ordura arte, hiritar guztien eskubide zibil eta politikoak nola bermatuko dira? Egun, Udalbatza honetan ahots guztiak ez daude ordezkatuta. Hori da errealitate gordina. Esan beharra daukagu Udalak ez duela herritarron borondatea ordezkatzen, eta horrela izanik, ez du zilegitasun demokratikorik. Europa osoan gertatzen den kasu bakarra da egun Hego Euskal Herriko instituzio ezberdinetan bizi duguna.

Beraz, aurrera jotzeko garaia da. Gaurdanik. Nahiz eta udaletxetik kaleratu, bi urte hauetan mozioak, alegazioak, ekarpenak, iradokizunak egin ditugu bitarteko mugatuekin, baina ilusio handiz eta gogo biziz. Gu prest gaude; beste batzuei dagokie bazterketaren aurrean jarrera definitzea. Bitartean, udal legealdia aurrera doa. Bi urte igaro dira eta beste bi urte falta dira. Idatzi honetan erabili ditugun hitzak: bota, kendu, apartheid, baliogabetu, legez kanporatzea..., iraganaren lekuko ilunak izan daitezen, Alderdien Legearen aplikazioak sortutako eskubide zibil eta politikoen urraketa egoera hau ahalik eta lasterren gainditu beharra dago. Aldaketa politikoen atarian gaude eta gure gizartearen borondatea antolatu eta babestuko duen oinarrizko akordioa lortzeko guztion konpromisoa ezinbestekoa izango da. Behingoz urte gehiegitan jasan dugun sufrimenduekin bukatu eta eskubide guztiak berma daitezen.

Noski, urratsen bat eman da, ehun hautetsi baino gehiagok bere kargu publikoa utzi edo ez zegozkielako ez dituzte bereganatu. Hau ez da Oñatiko Udalaren kasua, zoritxarrez. Orain, hurrengo urratsa kargu publiko horiek hutsik utzi dituzten aulkiak herri plataformetako kideek bereganatzea litzateke, alde batetik; eta bestetik, gainontzeko hautetsiak (300 baino gehiagok oraindik) beraien dimisioak aurkeztea, herriz herri zein udaletxez udaletxe harturiko neurri konkretuen bidez.

Beraz, eta amaitzeko, adierazi guztiok garela beharrezkoak egoera antidemokratiko hau gainditu nahi badugu. Une politiko oso garrantzitsua bizitzen ari gara, aldaketa politikoaren unea eta esandakoa gauzatzeko guztiz beharrezkoa da apartheida gainditzea. Apartheida gainditzen bada, prozesu politikoa bultzatuko dugu; apartheida mantentzen bada, ordea, prozesuarekiko zama bat izango da. Ezin diogu atea itxi 25 urteotan gertatu ez den aukera historiko honi. Denok jarri behar dugu gure hazitxoa, interes pertsonal zein partidistak albo batera utziz eta Euskal Herriaren zein euskal herritarron etorkizuna gure lehentasuna izanik.

MARIJO ALTUBE (EREITTEN)
Oñati

Leitza eta Arrasate: harrikada batera

Paisaiaren pertzepzioak ikuspegi ugari sortzen ditu. Forestalistek erauzteko moduko metro kubikoka egur ikusten dute basoan. Mendizaleek gailurrera igotzeko ibilbideak ikusten dituzte. Gizaki gehienok, ordea, basoa baino ez dugu ikusten, hau da, zuhaitzak, natura eta paisaia berdea.

Euskadikoak ez ziren zenbait biogeografori Euskadiko basoetako paisaia zein zen galdetu zietenean, pinudia zela erantzun zuten. Euskal biogeografoek, berriz, artadia zela ihardetsi zuten galdera bera egin zietenean. Hiritarren pertzepzioa faktore kulturalen, profesionalen eta ideologikoen araberakoa da, eta ondare naturala antzemateko, interpretatzeko, balioesteko eta bertan esku hartzeko eskubidea hiritarren eskubidea da.

Leitzan, herri-kontsultaren bidez betearazi dute eskubide hori. Hain zuzen ere, harrobia ustiatzen zuten ala mendia bere horretan uzten zuten erabaki behar zuten, eta hiritarrak kontserbazionistak izan dira. Ingurumeneko gai bati buruzko erabaki adostua hartu dute.

Egia esan, taldean interpretatu, balioetsi eta erabaki dute zer egin euren ingurumeneko, meatzaritzako eta paisaiako ondarean. Inolako zalantzarik gabe, Leitzan errepideak egiteko harria behar dute, ofita gogorra bezain preziatua, bai eta herriko etxe ederretarako kareharri paregabea ere. Dena den, mendia bere horretan uzteko erabakia hartu dute, eta erabaki horrek legezkotasun osoa dauka, adostasuna erabatekoa izan da-eta.

Arrasaten dagoen koral-arrezifeak kareharri aparta ekoitzi du milioika urtetan zehar, eta, horrez gain, arrasatearren mendi bereizgarria da. Udalatx mendiaz ari gara.

Magaletako bat irentsi duen harrobia 2010era arte baino ez dute ustiatuko. Harrobiak, hain zuzen ere, kalitateko materiala hornitu du azken urteotan 20 kilometroko itzulinguruan sortu diren premia guztietarako: hareak, uharriak, hartxintxarrak, zementu eta hormigoietarako harriak eta hautsak, gure etxeak, zubiak, kaleak egiteko.

Kareharri erraldoi bezain zoragarria ustiatzen jarraitzeko, mendia zulatzeko proposatu dute, hau da, barruko galerietan garatu nahi dute ustiapena, begi-inpaktua, hautsa eta eztanden zarata ekiditeko. Gizarteak lurrazpiko ustiapenaren inguruko zalantzak ditu, eta jarrerak desberdinak dira.

Seguruenik, joan den mendean, ez zen batere arazotsua izango Udalatx mendian kareharri-meategia ustiatzea. Gaur egun, ordea, gizarteak bere iritzia adierazteko eta ondare naturala zertarako erabiliko duten interpretatzeko premia dauka.

Arrasaten, pertsona eta erakunde askok, Ezker Batua Berdeak-ek, besteak beste, gizarte-ondarea izango balitz bezala sentitu, gogoratu eta gozatzen dute Udalatx mendia, barrutik eta kanpotik mendigunearen pertzepzio osoa eratzen duen kareharriaren osagaia izango balitz bezala. Txindoki mendiko gailurra, esate baterako, kokagune aparta da parke eolikoa jartzeko. Dena den, paisaiako eta kulturako osagai bereizgarria denez, oso gogorra izango litzateke bertan goian aire-sorgailuak daudela ikustea. Modu berean, hausnartzeko modukoa da Udalatx bezalako mendia barrutik hustu behar den ala ez, garrantzi handiko kontua delako.

Udalatx mendia barrutik ustiatu behar den ala ez erabaki ahal izatea ez da gai teknikoa edo enpresa-arloko gaia bakarrik, Leitzan bezala, taldearen pertzepzioa ere badelako. Hori dela eta, adostasuna bera da asmatzeko edo erratzeko eta elkarrekin erratzeko modu onena. Taldean hartutako erabakiaren ondorioak askoz eramangarriagoak dira.

Planetako ingurumen-krisi handiena bizi dugunez, arazoaren, gauzen balioaren, harrien eta mendien gaineko kontzientzia hartu dugu. Erabakitzeko eta parte hartzeko eskubidea higiene demokratikoaren adierazgarri da, hiritarren partaidetzarako esperientzia, alegia. Gaur egun, gainera, inoiz baino beharrezkoagoa da Arrasaten.

Esandako guztia kontuan hartuta, EB-Berdeak-ek Udalatx mendiko harrobiari buruzko kontsulta egiteko eskatu

du. Ezetz esanez gero, XX. mendera itzuliko ginateke, azken 2.000 urteotan baliabide, espezie eta ekosistema gehien hondatu dituen mendera, alegia.

Joseba Ugaldek, Arrasateko EBko zinegotziak, jakin badaki hiritarren erabakia bete-betean asmatzeko berme onena dela, erabakia edozein dela ere. Arrazoia dauka, gainera. Josebak badaki harria herri honen gizarte-arimaren osagaia dela, badaki hormak harriz egin da daudela eta badaki zeinen neketsua den horma horiek eraistea. Josebaren ustez, hiritarren partaidetza ingurumenaren hondamendiari aurre egiteko aldaketaren giltzarria da. Era berean, horixe bera da bere kide guztien konpromisoa.

ANDER RODRIGUEZ (EZKER BATUA)
Arrasate

Eskerrik asko guztioi

Laixan euskara elkarteak eskerrak eman nahi dizkizue "Iparraldea Oñatin" jaialdia gertutik bizi izan zenuten guztioi. Ez ekitaldi ezberdinetan parte hartu zenutenoi bakarrik, baita era batera edo bestera jaialdia aurrera eramaten lagundu zeniguten guztioi ere; hala nola, Etxaluze elkarte gastronomikoko talogileak, ikastetxeak, Udala, txalapartariak, txistulariak, bertsolariak, Oñatz dantza taldekoak, trikitilariak, babesleak, kazetariak, laguntzaileak... Zerrenda benetan amaigabea!

Hala ere, Laixan euskara elkarteak eskerrak eman gura dizkizue, bereziki, maiatzaren 25etik 28rako ekitaldiak antolatzen ezkutuan jardun duzuen guztioi, zuek izan baitzarete hasieratik jaialdi honetan sinistu eta egun hauek posible egin dituzuenak.

LAIXAN EUSKARA ELKARTEA
Oñati

Espainiar selektibitateari zaplastakoa!

Urtero bezala, ekainaren 8-9-10ean, Euskal Herriko ikasle askok espainiar selektibitatea egin behar izango dute. Hiru egunetan erabakiko da ikasi nahi dutena ikasteko "gaitasuna aitortzen zaien edo, ez".

Selektibitatearen izaera arrotza da: "Egungo hezkuntza sistemak uneoro zapaltzen ditu ikasleon hizkuntza, kultura, hezkidetza... eta selektibitatea horren adierazpide gorenetakoa da". Euskal ikasleok eduki arrotzak barneratzeko bitartekoa da selektibitatea. Espainiako probintzia, mendilerro, ibai... guztiak jakin behar ditugun bitartean, Zuberoakoak edo Nafarroakoak ez ditugula ezagutzen salatu nahi dugu.

Edukiez gain, ordea, selektibitatearen beraren izaera ere salatu nahi dugu; azterketa sistemaren izaera okerra da: "Zer suposatzen du azterketa sistemak? Azterketa sisteman emaitza hutsa da garrantzitsuena; ikastea, prozesua, ez da garrantzitsua. Azterketek ez dute neurtzen gure ikasteko gaitasuna, ez dute neurtzen ez zer ikasi dugun ez ze zentzu hartu diogun. Ez da baloratzen interpretazioa, baizik eta errepikapena".

Egun hauetan ikasturte osoan euskal ikasleriak egin duen moduan, gure eskubideak defendatzeko prest gaude! Espainiar selektibitatea euskal ikasleon eskubideen zapalketaren adierazpide gordinena izanik, espainiar selektibitateari gure ezezko borobila eman behar diogu! Gaur ere gure eskubideak salgai ez daudela aldarrikatu egin behar dugu! Selektibitatearen bidez, euskal ikasleok eduki arrotzak barneratzen ditugu, ikasleon kultur eskubideak erabat zapalduz! Datozen hiru egunetan burutuko dituzuen zortzi azterketetan ateratzen duzuen notaren arabera sailkatuko zaituztete! Urte osoko lana kontutan izan beharrean, azken eguneko memorizatzeko gaitasuna hartzen dute aintzakotzat! Ez al zaizue injustu iruditzen klaseko parte-hartzea, ikasleon kritikotasun eta sormena albo batera uztea? Non dago hezkuntza prozesuan subjektu izateko eskubidea? Bidegabekeria hauen aurrean, azterketa sistemaren erakusgarri gorena den selektibitateari doakiola ba gure ezezko borobila!

Ikasle borrokaz gure eskubideak eskuratuko ditugu!

BERGARAKO IKASLE ABERTZALEAK
Bergara

Hiru pauso apartheida gainditzeko

Egun hauetan, Euskal Herrian azken urteetan izan diren egunik beltzenetariko baten urteurrena betetzen ari gara. 2003ko maiatzaren 25ean, espainiar estatuak herri honen eskubide zibil eta politikoen aurka beste urrats bat eman zuen milaka herritarren borondatea eta hitza alde batera itxiz.

Bi urte hauetan, batzuk egoera honetaz baliatzen ari diren bitartean, apartheidaren zutabe bihurtuz eta inolako lotsa izpirik gabe, instituzio ez-demokratikoak kudeatuz, besteok bitarteko berriak topatzen ari gara egoera ez-demokratiko honetatik zilegitasun osoz aurrera egiten jarraitzeko.

Horrela, Arrasateko Udalean apartheida gainditzeko (noski, 2003ko hauteskunde baztertzaileak errepikatzen ez diren bitartean), hiru pauso proposatzen ditugu:

1. 2.700 arrasatear baino gehiagoren borondatea errespetatzeko, oraindik lapurtutako karguetan dauden hautetsi lapurrek dimititzea, PNVko Nestor Arana, PSOEko Isaias Carrasco eta EBko Jose Antonio Baz. Aralarrek lehen pausoa emana du, ez baitu ez dagokion bigarren zinegotziaren kargua hartu, baina beste bi pausoak falta zaizkio.

2. Kargua ez dagokion zinegotziak dimititu ostean, PNV, PSOE, EB eta Aralarko zerrendetan ageri diren gainontzeko hautagaiek uko egin behar diote, espreski, bere alderdiko kideak hutsik utzi duen karguari.

3. Behin zerrendako guztiak dimititu ostean, bidea irekita dago Herri Anitzeko lau ordezkariak zinegotzi bezala izendatzeko, dimisioek Udalbatzan sortuko dituzten lau hutsune horiek betetzeko.

Hiru pauso hauek ez dira fikziozko politika, ez dituzte Herri Anitza plataformako kideak bere onerako asmatu. Hiru pauso hauek espainiar lege elektoraleko 182.2. artikuluak jasotzen ditu. 182.2. artikuluak argi eta garbi erakusten du ausardia eta bakoitzaren borondate politikoan dagoela Arrasateko Udalean eta gainontzeko instituzioetan bazterketa politikoa hein handi batean bertan behera uztea.

2003ko hauteskunde ez-demokratikoetan Herri Anitza plataformak 2.700 bozka baino gehiago lortu zituen. Hauteskundeak errepikatu ezean, emaitza horiekin lau aulki dagozkio plataformari, hain zuzen ere, PSOEko Isaias Carrascok lapurtu duena, PNVko Nestor Aranak lapurtutakoa, EBko Jose Antonio Bazek lapurtu duena eta Aralarrek hartu ez baina kargua bahituta duena (horregatik darama Arrasateko Udalbatzak zinegotzi bat gutxiagorekin legegintza baztertzaile hau).

Noiz arte jarraituko dute ostrukaren gisa zuzenki eragiten dien arazo larri honen aurrean burua lurpean ezkutatzen? Ausardia eta borondate politikoa behar da, orain! No apartheid!

HERRI ANITZA PLATAFORMA
Arrasate

Aralarrek dagozkion zinegotziak ditu

Anonimotasunean mozorrotuta edozer esaten dabilenari ez erantzuteko egon gara, baina, bestalde, egia jakinarazi gura izan dugu, eta horregatik lerro hauek.

Udal hauteskundeetatik bi urte bete dira. Ezker abertzaleak irabazi zituen Elgetan hauteskundeak: Aralarrek hiru zinegotzi eta bat Auzolanianek. EAJ eta EA lege espainolaz baliatu dira herritarrek eman ez dioten gehiengoa osatzeko. Herriak argi eta garbi eman zuen bere iritzia. Ordua da EAJk eta EAk herritarrek esandakoa errespetzako.

Auzolanianek Udalean dagokion erabaki gaitasuna izateko proposamen zehatza eginda dauka Aralarrek: erabakigune paraleloa sortzea. Honek aukera emango luke alderdi bakoitzak herritarrek emandako babesaren tamainako ordezkaritza izateko. Udalbatzarrean EAJ-EAk ez zuen proposamena onartu.

Maiatzaren 25ean elkarretaratzea izan zen Elgetan Auzolanianen erabaki gaitasuna eskatzeko. Han izan ziren Aralarko bi zinegotzi. Maiatzaren 26an inork sinatzen ez zituen kartelak agertu ziren Elgetan. Lapurrak eta putreak gara Aralarkoak kartelak egin zituzten anonimoendako.

Lapurrak? Aralarrek ez du berari ez dagokion zinegotzirik hartu, ez Elgetan, ez Debagoienean, ez Euskal Herri osoan. Salbuespena da Leitza, plataformarekin adostuta eta UPNren alkatetzea saihesteko berari ez dagokion zinegotzia hartu zuen Aralarrek.

Izenik gabeko kartel jartzaileei edo gai honen gainean zalantzarik duen edonori esan gura diegu, jartzeko gurekin harremanetan dituzten zalantzak argitzeko.

Elgetako Aralarrek esan gura du kokoteraino gaudela lapurrak garela irakurtzearekin. Aspaldi, irakurri genituen Euskal Herriko eta Debagoieneko herrietan gezur horiek; orain, Elgetan bertan. Aralarrek ez du berari ez dagokion kargurik hartu eta aspertu gara hori errepikatu eta arrazoitzen.

Hobe genuke gure indarrak bideratzea Elgetan EAJ-EAren alternatiba izango den ezkerreko proiektu baten alde.

ELGETAKO ARALAR
Elgeta

Eta Irala kalea?

Entzun berri dut Bergarako Udalak onartu duela Ariznoa edo Goiko plaza eta San Pedro kalea urbanizatzeko proiektuak egitea. Orain dabiltza Arruriaga eta Artekalea urbanizatzen. Poztekoa da horrelako egitasmoak bultzatzea.

Izan ere, uste dut Bergara oso narras nagoela urbanizazioari dagokionez. Historia eta arte aldetik etxe bikainak ditu; alde zaharra ere bikaina da. Baina urbanizazio aldetik oso txarto dago: oinezkoentzako kale gutxi daude eta zoruan, kasu gehienetan, asfaltoa, eta espaloiak negargarri (Masterrekan esate baterako).

Bide batez, eskatu nahi diot Udalari egin dezala lehenbailehen Irala kalearen urbanizazioa. Eta egiten ez badu, ze kontu honekin ez dakit zenbat urte daroatzagun, gutxienez itxi dezala kalea trafikorako ostiraletik igandera arte. Oinezkoek eta batez ere ume eta gurasoek asko eskertuko genuke.

A. AZKARATE
Bergara

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Natali Martínez, Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a

Euskal Bizikletak, 35 minutu ibarrean

Gatzagatik sartuko dira ziklistak ibarrera (10:38), eta Bergaratik irtengo dira (11:13)

XABIER URTZELAI

Ordu erdi pasatxo egingo du bihar Euskal Bizikletak ibarreko errepideetan. Esan barik doa eman ditugun erreferentziek minutu batzuetako gorabehera izango dutela. Hori bai, 42 kilometro orduko abiadurari eusten badiote, hortxe behar dute.

Murgian (Araba) hasiko dute bihar Euskal Bizikletako laugarren etapa, Debagoiena zeharkatuko duena. Orain arteko etapak arratsaldez egin dituzte, baina bihar lan-saio bikoitza izango dute, goiz eta arratsalde, eta goizean igaroko dira ibarretik. 09:55ean hasiko dute lasterketa, eta 28 kilometro egin eta gero iritsiko dira Venta Friara, 10:38 aldera. Bertan egongo da eguneko gune garrantzitsuenetako bat, etapak izango dituen tarteko helmugetako lehena jarriko dutelako Venta Frian (Eibarren egongo da bestea). Ihesaldiren bat ez badago, Venta Friako zuzengunean egon liteke lehen esprinta.

GOIENKARIA

Lasterkariek bi ordu eta minutu gutxi beharko dituzte 89 kilometroak egiteko.

ARLABAN, ERREPIDE ZAHARRETIK

Ordura arte etapa nahiko laua izango dute, baina Arlabanen amaituko da hori, orduan etorriko da-eta aldapa behera ederra. Jaitsiera hori, gainera, errepide zaharretik egingo dute —Leintz Gatzagako herritik igarotzen dena—, eta antolatzaileek gatzagarrei egindako saria da hori. Gogoratu datorren urtean Gatzagan amaituko dutela Euskal Bizikletako etapa bat eta baita hurrengo egunekoa hasi ere. Eta hori antolatzeko egin duten lanagatik jaso dute gatzagarrek saria. Arlaban atzean utzita, Eskoriatza (10:47), Aretxabaleta (10:53), Arrasate (11:01), eta handik Bergara (11:10). Bergaran emango dizkiete edatekoak, eta Soraluzera egingo dute gero (11:13).

Soraluzetik Eibarrera, eta orduan egongo da etaparen zailtasun bakarra, Karabietako portua. Elgetatik ziztu bizian igarota egingo dute berriro ere ibarretik sartu-irtena (11:45), Elo-rriora jaisteko, eta Abadiñon amaituko dute etapa (12:06). Arratsaldean, 13 kilometroko erlojupekoa egingo dute, Elorrio eta Abadiño artean.

GIPUZKOAKO TXAPELDUNA, ANTZUOLAN

Martitzenean egin zuten junior mailako Gipuzkoako erlojupeko txapelketa, Legorretan. Eta Gorka Larrea antzuolarra izan zen erlojuaren kontra azkarrena. Sumofic taldeko txirrindulariarekin batera ibarreko beste txirrindulari batzuk ere nabarmendu ziren: Antxon Anduaga aretxabaletarra, esaterako, zazpigarren geratu zen; Ander Nafarrate arrasatearra 13. postuan, eta Asier Penabad bergararra 14.a; laurek Sumofic taldean dihardute. Bestalde, Elite eta 23 urtez azpikoen mailan, Unai Arantzabal (TKV) bergararrak laugarren egin zuen eta talde bereko Kepa Varela bergararrak zortzigarren.

Kirolabur

IBARRA/ARETO FUTBOLA

Elgetako eta Arrasateko areto futbol txapelketak dagoeneko iritsi dira finalerdietara. Zaldibarko Txapelketan, bihar arratsaldean jokatuko dituzte bi norgehiagokak, 15:45ean lehena eta 17:00etan bigarrena. Elgetako txapelketan ere bihar jokatuko dituzte finalistak nortzuk izango diren erabakitzeko partiduak, 16:00etan lehena eta 17:00etan bigarrena.

ARRASATE/ERRUGBIA

Arrasate Errugbi Taldeak Nazioarteko Zazpinako Txapelketa eta Garagardoaren Jaia antolatu ditu oraingo astebururako. Errugbi txapelketa bihar egingo dute (15:00etan, Atxabalpen), eta senior mailako hamaika taldek hartuko dute esku; tartean, Valladolideko eta Bordeleko talde bana izango dira. Bestalde, Garagardoaren Jaia Herriko plazan egingo dute.

ARRASATE/JUDOA

Arrasate Judo Taldeak alebin, infantil eta junior mailetako txapelketa antolatu du. Euskal Herriko eta Estatuko hainbat talde etorriko dira bihar goizean egingo duten txapelketara (10:00etan, Musakolan); antolatzaileek 120 judoka baino gehiago batzea espero dute.

OMU
ZERAMIKAK
DEBAGOIENA

Bainu altzari eta osagaiak
•
Hidromasaje kabinak
•
Manparak
•
Eraikuntzako materiala

BILTEGIA/BULEGOAK:
Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA:
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20

Airea, ura, lurra, kontsumoa, garraioa, hondakinak, natura eta biodibertsitatea, aldaketa klimatikoa...

Ingurumenaren kezkak argitzeko: nola dago gure ingurumena?, zer egiten du gure Gobernuak?, eta nire udalak?, eta munduak?...

Eta hobetzeko, zure etxean, lanean eta aisialdian zer egin dezakezun jakiteko.

www.ingurumena.net
Ingurumenaren euskal webgunea

aurrera doan herria
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUGIRO SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

ingurumena
Zure esku dago

14 koa!

Euskaltelen **Zuntz Optikoarekin** bete-betean asmatuko duzu:

- X Kable bidezko **TB** (20 kanal aukeran)
- X **Telefonia finkoa**
- X Banda Zabaleko **Internet**

eta ORAINTXE BERTAN kontratatzen baduzu, Euskadi barruko deiak DOAN izango dituzu lehenengo hiru hiletan.

Hilean **14 €** -tik hasita.

Hileko kontsumoa bereiz fakturatzen da. Banda Zabalean Despega Recarga produktua ere sartzen da. Banda Zabalera konektatzeko, gutxienez 5 €-ko bonua erosi behar da. Zeharkako zergak sartu gabe. Telefono finkoetara egindako deiak, Euskadi Ahots Tarifa Finkoa kontratatuz gero. 2005eko uztailaren 31 baino lehen Etxeko Zuzeneko Sarbidean alta ematen duten bezero berrientzat balio du sustapen honek.

Euskaltelen **Zuntz Optikoarekin**, beste era batera ikusiko duzu mundua.
Etorri Router Comunicaciones-era eta asma ezazu. Bete-betean.

ROUTER COMUNICACIONES, S.L.

Errebal, 15 behea
tel. 943 70 03 69
Eibar

Maalako Errebala, 8 behea
tel. 943 71 27 81
Arrasate

Euskaltel -en Banatzaile Ofiziala

Gora
freskoak
Behera
prezioak
EROSKI
Erosten jakin

Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a

Kultura eta aisialdia

Ekainaren 3tik 10era

IBARREKO TRIATLOIA ZAPATUAN

► HERRIKOITASUNA ETA LEHIA BATERATZEN DITU IV. DEBAGOIENEKO TRIATLOIAK

► HELDUEN PROBA 16:00ETAN HASIKO DA, ETA UMEENDAKO TRIATLOIA, AURTEN LEHENENGOZ, 11:00ETAN

► ANTOLATZAILEEK, ANTXINTXIKA TRIATLOI TALDEAK, TRIATLOIA ZABALDU GURA DUTE DEBAGOIENEAN

Iazko etenaren ondoren, Debagoieneko Triatloia indarberrituta dator. Bihar, ekainak 4, kirolari profesionalek eta herriko zaleek bat egingo dute kirolaren jaialdi horretan, igeriketa, txirrindularitza eta antxintxika proba ikusgarriak betetzeko. Proba nagusiaz gain, 16:00etan, umeendako triatloia ere izango da aurten lehen aldiz, 11:00etan. Hori guztiori antolatzeko ahalegin handia egin du Antxintxikak, Debagoieneko Triatloi Taldeak.

Hasi aurretik, arrakasta da IV. Debagoieneko Triatloia. Joan den martitzenean aurkeztu zuten edizio hori Antxintxika Triatloi Taldekoek, eta egun horretara arte 135 lagunek zuten emanda izena; antolatzaileek espero dute kopuru hori berrehunera igotzea, edo beharbada hortik gora ere. Bestalde, Euskal Herrikoez gain, Salamanca, Katalunia, Frantzia eta beste leku batzuetako lehiakideak datoz. Izenen artean, Virginia Berasategi edo Hector Llanos goi mailako triatletak daude.

Hala ere, Antxintxikakoek espero dute triatloia arrakastatsua izatea beste maila baten ere: herri mailan. Izan ere, Antxintxikaren bokazioa da kirol herrikoia bultzatzea eta triatloia gure ibarrean indartzea. Hala, aurten saiatu dira triatloiak bi ezaugarri bete ditzan: batetik, lehiatzera datozenendako maila ematea; bestetik, disfrutatu gura dutenendako polita izatea.

Helburu horrekin, hainbat gauza aldatu dituzte igeriketa eta antxintxika probetan. Horrenbestez, proba 16:00etan hasiko da, eta hiru zati hauek izango ditu: lehenengo, igeriketa proba Urkulun; segidan, txirrindularitza lasterketa Urkulutik Arrasatera; eta bukatzeko, Arrasaten antxintxika lasterketa. Hamar sari daude: txapeldunarendako, 300 euro, garaikurra eta txapela; bigarrenarendako, 180 euro eta garaikurra; eta hirugarrenarendako, 150 euro eta garaikurra.

Umeendako triatloia, aurtengo beste berritasun bat, 11:00etan hasiko da. Izena emateko aukera dute DBHko 1.eta 4. maila bitartekoek: www.antxintxika.org webgunean, Musakolako kiroldegira deituta (943 77 16 77) edo egunean bertan, ordubete lehenago. Mendi-bizikletaz egingo da txirrindularitza proba, eta kaskoa eramatea derrigorrezkoa da.

ZAILTASUN HANDIAK

Triatloia antolatzeko ahalegin handia egin du aurten Antxintxika taldeak, eta antolatzaileek esan zuten kostata baina azkenean lortu dutela 9.000 euroko aurrekontua estaltzea. Horretarako, Debagoieneko hainbat udal, erakunde, kirol talde eta enpresaren babesa izan dute.

Aurkezpenean gogoratu zuten diru eta antolakuntza arazoek galarazi zutela iaz triatloia antolatzea: "Ez zegoen nahiko jende parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko, eta hori da gure lehentasuna. Aurten, zortzi hilabetez aritu gara antolatzen. Esfortzu handia izan da, hor gabiltzanok ez garelako profesionalak", azaldu zuten Antxintxikakoek. Aurten, antolakuntza lana handiagoa izan da umeendako triatloia ere antolatu dutelako, eta horretarako segurtasuna ere bermatu behar zutelako. Jasotako laguntza handia izan arren, hutsune bat geratu zaie: ez dute lortu arropa ofizialerako babeslerik, eta azkenean eurek atera dute.

Oztopoak oztopo, pozik dago Antxintxika Triatloi Taldea: "Ikusten dugu triatloia ibarrean zabaltzen ari dela. Orain bost urte, hamar lagun ginen; orain, 50 inguru gara".

TALDEKO KIDE BAT, BABES BILA

Antxintxika taldeak beste ahalegin bat egin beharko du. Izan ere, Xabi Lekue pasaiarra, taldeko kidea, munduko triatloi proba gogorren, zaharren eta ospetsuena jokatzeko sailkatu da: Hawaiiko ironman proba, urrian. Hala, Debagoieneko taldearen izena munduko triatloi gorenera eramango du Xabi Lekuek. Horretarako babesle beharrean dago Antxintxika, martitzeneko aurkezpenean esan zuten moduan. Han, Lekuek eskerrak eman zizkion Antxintxikari aukera hori ematearren, eta esan zuen edozein laguntza eskertuko dutela. Lekuek Lanzaroteko ironmanean lortu zuen sailkapena, 801 parte-hartzailetatik 44. postuan sailkatu ondoren. /15

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IÑAKI ITURBE / ARGAZKIAK: ANTXINTXIKA


FERIXIE
Ekainak 4, larunbata
ESKORIATZA
ANTOLATZAILEA
Arizmendi
ikastola
Jose Arana gunea
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
eskoriatzako
udala

KIROL EKIMENAK/ IV. TRIATLOIA ANTOLATU DU ANTXINTXIKA TRIATLOI TALDEAK

Triatloia, herritarrei zabalduta

BIHAR, EKAINAK 4, JOKATUKO DA DEBAGOIENEKO IV. TRIATLOIA. ANTOLATZAILEEN NAHIA DA KIROL HORI EZAGUTARAZTEA

LEIRE KORTABARRIA

Debagoieneko IV. Triatloiak aurrera egin du, zailtasunak zailtasun. Antxintxika Triatloi Taldeak ahalegin handia egin du eta berritasun batzuk sartu ditu proba ikusgarri eta herrikoia izan dadin aurtengoa. Joan den martitzenean aurkeztu zuten edizioa antolatzaileek.

Aurtengo triatloia, Olatz Rementeria memoriala –taldeko kide baten alaba zenari omenaldi bezala–, berezia da. Izan ere, probei aldaketa batzuk egin dizkiete antolatzaileek, Antxintxinka taldekoek, proba ahalik eta erakargarrien izan dadin, bai lehiakideendako, bai eta ikusleendako ere.

Proba bihar, zapatua, jokatuko da. Batetik, umeendako triatloia jokatuko da, lehenengo aldiz. Hori Urkulun izango da, 11:00etan, eta 100 metro igeriketan, 6,6 kilometroko bizikleta itzulia eta 1.000 metroko lasterketa izango dira. DBHko 1. eta 4. mailen bitarteko ikasleek parte har dezakete.

IKUSGARRIAGOA

Helduen proba 16:00etan hasiko da; lehenengo, igeriketa proba izango da, Urkulun. Horko berritasuna da ikusgarriago egiteko eremu guztia 500 eta 1.000 metroko bi triangelutan banatu dutela, horrela ikusleek hobeto jarrai ahal dezaten.

Bizikleta proban ez dute aldaketarik egin, eta Urkulutik Arrasateraino izango da. "Bai profesionalendako, baita herrikoendako ere, oso zirkuitu polita eta egokia da, horregatik ez dugu aldatu", esan zuen taldeak.

Azkenik, antxintxika proban dator beste aldaketa nagusia. Orain arte, 5 kilometroko bi itzuli egiten ziren, baina Arrasate erdigunetik aldendu egiten zen lasterketa. Orain, 3,3 kilometroko bi itzuli egingo dituzte, herri barruan. Hala, jende gehiagok izango du ikusteko modua.

Antxintxinkak ahalegin handia egin du triatloia antolatzeko, eta kostata topatu dute 9.000 euroko aurrekontua estaltzeko nahikoa babesle. Ea herritarrek bat egiten duten kirol jai horrekin.



LEIRE KORTABARRIA

Ezkerretik eskumara, Xabi Lekue triatleta eta Aitor Rementeria, Asier Barrainkua eta Jose Mari Barrena antolatzaileak.

Probarik zailenera

Munduko triatloi gogorrena, Hawaiiko Ironman proba, jokatuko du Antxintxikako Xabi Lekuek. Oso zaila da harako sailkatzea. Lekuek Debagoieneko izena hara eraman dezan "ahalegin berezia" egingo du Antxintxikak, eta ematen dieten laguntza eskertuko dute ere.

Xabi Lekuek dio sailkatzea "ezustea" izan zela, eta bere asmoa dela "ahalik eta ondoen" egitea proba.

Xabi Lekue triatleta.

ESCALOFRIOS
Tres relatos de terror

Ada teatro & Lula teatro

ANTZERKIA

Non:
Arrasateko Amaia antzokian

Noiz:
Ekainaren 5ean, domeka, 19:30ean.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a

Ekainak 3-10

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

MATRIKULAK

ARRASATE

► **Arrasate Institutuak** zabaldu du Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako aurrematrikulazio epea. Ekainaren 6ra arte egin dezakezue.

► **Arrasate Musikalen** matrikulatzeko epea zabalik dago ekainaren 22ra bitartean, egun hori barne. Horretarako, joan euren idazkaritzara, lanegunetan, 17:00-20:00 ordutegian. 4 urtetik aurrerako edozein matrikula daiteke. Leku kopuru mugatua dagoenez, izenemate ordena jarraituko dute.

BERGARA

► **UNED-Bergarako** udako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Bihar, zapatua, duzue azken eguna, hain zuzen. Laugarren urtez antolatzen dituzte, eta aurten, 21 ikastaro daude aukeran, gizarte zientzien, osasunaren eta psikopedagogoaren arloetan. Matrikula egin daiteke Bergaran duten egoitzan, seminarioan, edo *www.uned.es/ca-bergara* webgunean.

OÑATI

► **Musika eskolan** matrikula egiteko epea zabalik egongo da ekainaren 15era bitartean. Horretarako, joan euren bulegora 18:00etatik 20:00etara bitartean.

► **Heziketa zikloak** antolatu ditu Zuazola-Larraña institutuak. Mekanizazio, makinen mantenu eta kirol ekintzen gidaritza zikloak dira. Aurre-matrikula egiteko epea zabalik dago ekainaren 1etik 8ra bitartean.

OSPAKIZUNAK

ARAMAIO

► **Santikrutz Eguna** ospatuko dute etzi, domeka, Arexola-Arriolako gazteek antolatuta. 12:00etan, meza izango da; gero, mokadua eta, bukatzeko, eguraldiak laguntzen badu, bazkaria. Trikitilariak ere arituko dira.

ARRASATE

► **Nagusien Astea** ospatuko dute Iturbide egoitzan hilaren 6tik 10era. Astelehenean, hilak 6, kafe-tertulia izango dute; martitzenean, 7, Barruti magoaren saioa; eguenean, 9, Nikolas Gardokirekin dantzaldia; eta egubakoitzean, 10, bolo eta bingo txapelketak. Adinduen senide guztiak ekintzetan parte hartzera gonbidatuta daude.

ESKORIATZA

► **IX. Ferixie** antolatu du Arizmendi ikastolak. Bihar, zapatua, izango da. Goizean, baserriko produktuak, artisautza eta abere erakusketak, txorimalo lehiaketa, puzgarriak… izango dira; bukatzeko, herri bazkaria pilotalekuan.

ANTZERKIA

ARETXABALETA

► ***Ezetz lepoa jarri!*** antzezlana egingo dute bihar, zapatua, kirol etxean, 22:30ean. Sarrerak salgai daude 10 eurotan kultura etxean, kirol etxean eta Artano eta Arlutz tabernetan.

ARRASATE

► ***Escalofríos*** antzezlana egingo dute Ada eta Lula antzerki taldeek etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

OÑATI

► **Korri, Xalto eta Brinko** pailazoek emanaldia egingo dute etzi, domeka, Santa Anan, 17:00etan.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Juan Maria Uriarte gotzainak** meza esango du etzi, domeka, agustindarren komentuan, 12:00etan. Aretxabaletako abesbatza eta Jose Manuel Azkue organo-jolea arituko dira.

► **Mundumira jaialdiko kamisetak** saltzen ari dira kultura etxean.

ARRASATE

► **EHNA** tramitatuko dute bihar, zapatua, Monterronen, 11:00-13:00.

► **80 urtetik gorakoei omenaldia** egingo die Udalak ekainaren 24an, eta izena emateko epea zabalik dago udaletxeko bulegoetan, ekainaren 17a baino lehen.

► ***Convivir en Northampton. Familias homosexuales*** delako zine-foruma egingo dute eguaztenean, hilak 8, Emakume Txokoan, 19:00etan, Aldarte elkartearen eskutik.

BERGARA

► ***El abandono y la exposición infantil en Gipuzkoa en el siglo XIX*** delako hitzaldia egingo du Lola Valverde Lamsfus adituak ekainaren 7an, martitzena, Miguel Altuna ikastetxean, 19:30ean,.

► **Jardunen jolasleku ibiltaria** Espoloian izango da gaur, egubakoitza, 17:00-19:00 ordutegian.

► MUSIKA

PARADISE LOST KONTZERTUAN

Metal gotikoaren erregeak, Paradise Lost, bueltan dira, eta *Paradise Lost* disko berria aurkezteko kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Bergarako Jam aretoan. Hala, entzuleek gozatu ahal izango dute Ingalaterrako talde horren hasierako doinuekin –death metal suabea, orkestra moldaketak, emakumezko ahotsak eta gitarra melodikoak– eta gerora sartu zituzten berritasunekin –gero eta melodikoagoa, teklatuen eta doinu elektronikoen protagonismoarekin. 2001. urteaz geroztik, ordea, hasierako soinuetara bueltatu ziren, estilo elektronikoa guztiz alderatu barik. Paradise Lost-en emanaldiaren aurretik, beste bi taldek joko dute: Society 1ek eta Orphaned Land-ek.

Non: Bergarako Jam aretoan.
Noiz: gaur, ekainak 3, egubakoitza..
Ordua: 20:00etan.

DEBAGOIENA

► **Aste Berdearen** barneko azken ekintzak egingo dituzte bihar eta etzi, zapatua eta domeka, Arrasaten, Aretxabaletan eta Elgetan. Tartean, II. Birzikleta Azoka egingo dute bihar, zapatua, Arrasaten, Seber Altube plazan.

ESKORIATZA

► **San Pedroetako danborradako** entseguak martitzen eta eguenetan dira, frontoian, 21:30etik 22:30era bitartean.

IKUSKIZUNAK

ARAMAIO

► **Gasteizko Ardutza dantza taldeak** erakustaldia egingo du bihar, zapatua, 19:30ean. Eguraldi ona badago, plazan izango da; bestela, kiroldegian.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Ardo-dastatze ikastaroa** izango da hilaren 6an, astelehena, udaletxe zaharrean, 18:00-20:00 ordutegian. Loramendiko bazkideek eta ikasleek 5 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, 8 euro.

ESKORIATZA

► ***Zure kanala sintonizatu*** delako ikastaroa izango da gaur, egubakoitza, KZGunean, 11:00-13:00 ordutegian.

MUSIKA

BERGARA

► **Razvan Suma eta Josu Okiñenak** txelo eta piano kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundiaren elizan, 20:00etan.

OÑATI

► **Soziedad Alkoholika eta Amonal** taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean. Atzeko Kaleko jai batzordeak eta Oñatiko Gazte Asanbladak antolatzen dute.

► **Juan Carlos Irizar (pianoa) eta Karmelo Mendizabal (soinua)** musikariek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Larrain-Gain elkartean, 22:00etan. Eguraldi ona badago, kontzertua terrazan izango da.

Zinema

ANTZUOLA

■ **FRONTOI TXIKIA**

Los increíbles
Egubakoitza: 22:30.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Ekainean ez da zinema emanaldirik egongo.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Diarios de motocicleta
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

El hundimiento
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Cosas que hacer antes de los 30
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Star wars, episodio 3
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Morir en San Hilario
17:00, 19:45, 22:30.

Star wars, episodio 3
17:00, 19:45, 22:30.

El reino de los cielos
17:00, 19:45, 22:30.

Steamboy
19:45, 22:30.

Danny the dog
17:30, 20:00, 22:30.

Una hija diferente
17:00.

Un rey en La Habana
17:30, 20:00, 22:30.

Código 46
17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Star wars, episodio 3
17:10, 19:55, 22:30.

El reino de los cielos
17:10, 19:55, 22:30.

Frágil
17:10, 19:55, 22:30.

The eye 2
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 20:15, 22:45.

Un rey en La Habana
17:30, 20:15, 22:45.

Hierro 3
17:30, 20:15, 22:45.

Million dollar baby
17:10, 19:55, 22:30.

Hechizada
Zapatua eta domeka: 17:30.

Arsene Lupin
17:30, 20:15, 22:45.

Sahara
17:20, 20:00, 22:35.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

90 millas
20:00.

A la vuelta de la esquina
17:30, 20:00, 22:30.

Millones
18:00, 20:15, 22:30.

El cielo gira
17:30, 20:00, 22:30.

La última primavera
18:00, 20:15, 22:30.

Fernando y Carolina
17:30, 22:30.

Tapas
17:30, 20:00, 22:30.

Perder es cuestión de método
18:00, 20:15, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Un rey en La Habana
16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 01:00.

Robots
17:00.

El reino de los cielos
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

El último golpe
16:00.

XXX 2 - Estado de emergencia
20:05, 22:45, 01:00.

Cosas que hacer antes de los 30
20:10, 22:15, 01:00.

Star wars, episodio 3
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Un canguro superduro
16:00, 18:05.

Danny the dog
16:00, 18:10, 20:15, 22:20, 01:00.

Million dollar baby
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Los chicos del coro
16:00, 18:05.

Habana blues
19:15, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Tapas
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Justa venganza
20:20, 22:20, 00:20.

La intérprete
19:35, 22:05, 00:40.

El reino de los cielos
12:15, 15:45, 18:45, 21:45, 00:35.

Million dollar baby
20:45, 23:45.

The eye 2
20:05, 22:05, 00:05.

El gran golpe
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Heffalump
12:15, 16:20, 18:20.

XXX 2 - Estado de emergencia
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Bob esponja
12:15, 16:05, 17:50.

Un canguro superduro
12:15, 16:45, 18:45.

Kung-fu-sión
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Danny the dog
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Star wars, episodio 3
12:15, 15:30, 17:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:30, 00:30.

Robots
12:15, 16:05, 18:05.

Un rey en La Habana
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

11:14, destino fatal
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La intérprete
19:45, 22:20, 01:00.

Sahara
12:00, 17:10, 19:40, 22:05, 01:00.

Kung-fu-sión
12:00, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Robots
12:10, 17:10.

El reino de los cielos
12:00, 16:05, 19:05, 22:05, 01:00.

Tapas
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:40, 01:00.

Un canguro superduro
12:15, 16:10, 18:00.

The eye 2
20:10, 22:10, 00:30.

Star wars, episodio 3
12:00, 16:00, 16:30, 19:00, 19:20, 22:00, 22:30, 01:00.

XXX 2 - Estado de emergencia
12:15, 17:00.

No sos vos, soy yo
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Soñando, soñando, triunfe patinando
12:15, 16:00, 18:00.

Heffalump
12:20, 16:30.

Reinas
18:00, 20:10, 22:25, 00:45.

La maldición
20:05, 22:15, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Million dollar baby: ●●●● / ***Tapas:*** ●●● / ***La intérprete:*** ●●● / ***Reinas:*** ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

LA ÚLTIMA PRIMAVERA

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Charles Danc.
AKTOREAK: Judi Dench, Maggie Smith.

Agian, Charles Danc-en izenak ez digu gauza handirik esango, baina bere aurpegia nahiko ezaguna da. Duela urte batzuk *La joya de la corona* telebista saioan parte hartu zuen, eta zinemari dagokionez, oso proposamen desberdinetan lan egin du: Meryl Streep-ekin *Plenty*-n, *Gosford Park*-en, *El último gran héroe*-n eta Daniel Mozonen *Desvío al paraiso*-n. Denak ez dira film onak, baina gehienetan aktore moduan maila ona erakutsi du. Orain zuzendari lanetan L*a última primavera* egin du, eta, normala denez, hura aktorea da-eta, aktoreen lana filmaren zutabe nagusia da.

La última primavera-ren istorioa Ingalaterrako kostaldeko herri txiki baten kokatzen da, II. Mundu Gerra hasi baino lehenagoko garaian. Adin handiko bi ahizpek hondartzan konorterik gabe dagoen mutil gazte bat topatu dute. Gazteak ez du andreen hizkuntza ulertzen, baina poliki-poliki elkar ulertzen hasiko dira eta hiruren artean maitasun lokarriak sortuko dira. Gaztearen agerraldiak bi andreei shock-a eta adrenalina-karga eragingo dizkie. Bi ahizpen artean norgehiagoka baten sartuko dira gaztearen arreta lortu nahian. Judy Dench-ek egiten duen pertsonaia ameskeria

baten murgilduko da, eta hor barruan, galdutako denbora eta bizitzak ukatu dion sentsazioak lortu nahi izango ditu.

Pertsonaien deskribapenean datza filmaren muina. Daukaten adinarengatik bizitzan ia dena eginda duten bi emakumeek bizirik daudela sentitzeko aukera izango dute. Bizirik sentituko dira eta bizitzak debekatu dien sentsazio eta sentimenduak ezagutuko edo berreskuratuko dute. *La última primavera*-k sentsibilitatez amodio platonikoz beteriko istorioa kontatzen digu. Maggie Smith-ek, ahizpa helduaren rolean, lan bikaina egiten du, eta Judy Dench-ek egiten duen lana zoragarria da (nahastu egiten da eta gertakizunengatik gaindituta sentitzen da. Neurritasunez bere barnean sortzen diren emozio jatorri guztia ateratzen du).

La última primavera-k, pertsonaien filma denez, ederki betetzen du bere helburua; sentsibilitatez eta aberastasunez aditzera ematen duelako bi emakume horien emozio guztiak.

ANTONIO ZABALA

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Duplexa erdialdean 180 m².
• Zubiaurre 45m². Berrituta.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Erdialdea 50 m². Berritzeko.
• San Pedro 110 m². Berritzeko.
• Bolu 82 m². Garajea.
• Matxiategi 75 m². Eguzkitsua.
• Masterreka 70 m². Oso ondo.
• Duplexa Bolun 90 m².
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza berri.
• 88 m². Garajea. Oso ondo.
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Angiozarren, Soraluzen, Aramaion eta San Juanen.
LOKALAK ETA GARAJEAK
Salgai eta errentan.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40
ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
•Erdialdea 72 m². Oso ondo. Ganbara
•Erdialdea 90 m². Berrizteko
•Erdialdea 57 m². Oso ondo.
•Duplexa, erdialdean 116 m².
•Masterreka 69m². Oso ondo dago.
•Martoko 60 m². Berritzeko.
•Elorregi 64 m². Berritzeko.
•Zubiaurre 45 m². Erdi berritua.
•Duplexa, erdialdean 170 m².
•Aranerreka 82 m². Garajea.
•San Pedro 110 m². Berritzeko.
•Txaleta 300 m². Berria.
ANTZUOLA:
•Bustinzuri 88 m². Berria.
•11 etxebizitza berri.
SORALUZE:
•Ezozi 83 m². Ondo dago.
BASERRIAK
•Elosua 246 m². Egoera onean.

Iragarki sailkatuak

943 76 92 71 edo *sailkatuak@goiena.com*

BERGARA
AVENIDA TABERNAK ZERBITZARIAK BEHAR DITU ASTE BUKAERETARAKO. 943 76 20 46

ARAMAIO
SUKALDE LAGUNTZAILEA ETA ZERBITZARIA BEHAR DIRA JATETXE BATEAN. 945 44 50 86

DEBAGOIENA
Dekoletaje enpresa batek
ZUZENDARI TEKNIKOA
behar du
Eginbeharrak:
• Produkzioa eta plangintza.
• Bulego teknikoa.
• Prozesuak/ kostuak, etab.
Eskakizunak:
Antzeko esperientzia edukitzea dekoletaje edo CNC mekanizazio enpresetan.
Baldintzak eta ordainsaria adosteko.
Interesatuok, bidali curriculuma honako helbidera: 163 posta-kutxa 20570 Bergara

BERGARA
BATZOKIAN SUKALDARIA BEHAR DA. 943 76 22 24

BERGARA
OKINDEGI BATEAN PERTSONA BEHAR DA JAIEGUNETAN LAN EGITEKO. GIDA BAIMENA BEHARREZKOA. 943 76 02 57

BERGARA
GALDARAGINTZAKO LANGILEA BEHAR DA. PLANOEN IRAKURKETA EGITEN JAKITEA KONTUAN DA. 943 76 51 20

ANTZUOLA
TABERNA ERRENTAN EMATEN DUGU ERRETIROA HARTZEN DUGULAKO. 943 78 70 51

ANGIOZAR
ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA. 943 78 22 80 665 72 24 46

ARETXABALETA
EMAKUMEA BEHAR DA ASTEBURUETAN JATETXEKO SUKALDEAN JARDUTEKO. 679 45 57 75

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Guztiz berritua dagoen etxea sagai. 639 73 40 57.

Bergara. Aranerrekan etxea eta ganbara salgai. Prezio ona. 615 71 70 68.

Bergara. Etxebizitza salgai Masterrekan. 70 m2. Terraza. Hiru logela. 699 10 07 27.

Costa Sancti Petri Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan, La Barrosa hondartzatik gertu. 616 14 65 54.

Elgeta. Etxebizitza salgai. 85 m2. Hiru logela, bi bainugela, bi despentsa. 657 72 17 00.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Igogailua du. Hiru gela. Ganbara ditu. 645 71 76 25.

103. ERRENTAN EMAN

Aguilas (Murtzia). Hiru logelako etxebizitza errentan ematen da. 610 27 73 72.

Almeria. Etxebizitza errentan, uztaileko bigarren hamabostaldian eta abuztuan. 649 03 47 20 edo 950 30 33 35.

Aretxabaleta. Hiru logela ditu. 943 79 03 83.

Benidorm. Apartamentua alokatzen da. 945 29 33 80.

Benidormen, Levanteko hondartzan, apartamentua errentan ematen da. Igerilekua eta garajea. 945 21 34 70 edo 652 75 91 72.

Cambrils. Apartamentua errentan ematen dut, itsasotik gertu-gertu; igerilekuarekin eta berdegunearekin. 610 79 47 29.

Conil. (Cadiz). Logelak eta apartamentuak. Carmen. 646 87 05 68 edo 956 44 02 23.

Gandia Playan apartamentua errentan ematen da udan. Igerilekuarekin. 645 71 05 83.

Menorca. Itsasotik 50 metrora dagoen txaleta. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela eta terraza. Ekain, uztail edo irailerako. 610 27 73 72.

Peñiscola. Apartamentua alokatzen da. 945 29 33 80.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza bat errentan hartu nahi dugun hiru neska gara, ikasleak. 676 39 01 21 edo 658 73 30 05.

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Hutsik badago hobeto. 943 79 17 15.

Donostia. Abuztuko lehen hamabostaldian etxebizitza hartuko nuke errentan. 665 70 02 54.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Erguin-Uriburu kalean, garaje itxia salgai. 665 74 82 57.

Bergara. Garajea salgai Ozaetan. Deitu telefono honetara: 620 41 01 16.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Unibertsitatetik gertu dagoen garaje plaza bat errentan ematen dut. Usaetxen dago. 66 euro hilean. 678 53 82 48.

Bergara. Masterreka kaleko goiko solairuan. 943 76 21 39.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela bat alokairuan hartu nahiko nuke. 19:00etatik aurrera deitu. 627 82 00 25.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Pertsona bat behar da astean lau orduz etxeko lanak egiteko. 656 73 34 84.

Bergara. Emakumea behar da goizero bi orduz etxeko lanak egiteko. Deitu 21:00etatik 22:00etara. 676 46 99 76.

Debagoiena. Pertsona bat behar da etxeko eta loraategiko lanak egiteko. Soldata ona. Estefania. 657 46 72 89.

Debagoiena. Neska behar da etxeko lanak egiteko. Ondo ordainduko da. Telefonoa: 657 46 72 89.

Etxeko garbiketak egiteko pertsona bat behar da. 627 64 91 58.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Emakume erdalduna gertu umeak zaintzeko. 655 70 39 38.

Bergara. Neska gaztea arratsaldeetan lan egiteko gertu. 620 74 10 07.

Debagoiena. Esperientziadun neska prest uztailean haurrak zaintzeko. 635 74 39 71.

Emakumea gertu lanerako: umeak zaindu, garbiketak edo pertsona nagusiak gauez zein egunez zaindu. Telefonoa: 649 59 86 04.

Euskara itzultzailea. Testuak ere zuzentzen ditut. 665 72 70 77.

Mutila gertu lanerako: eraikuntza, lorazaintza, garbiketak edo tabernari. 667 80 48 70.

Mutil gazte dinamikoa lan egiteko gertu Debagoienean. 676 58 64 99.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingelesezko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Bergara. Ekainean eta uztailean Lehen Hezkuntzako eskolak ematen ditu Irakasle tituludunak. 620 54 86 35.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A4. 1.9 TDI. 110 zaldi. 1998koa. Egoeran onean. 8.900 euro. 656 75 12 24 edo 943 53 36 67.

BMW F-6-50 trail motorra salgai. BKS matrikuladuna, 1998koa. 17.000 km. Bittor. 656 78 92 19.

Citroen Saxo salgai. 75 zp. 1400 cc. Lau urte ditu. Prezio ona. 943 77 08 08.

Ford Mondeo autoa salgai. 1.8T, 115zp. CLX modeloa. 81.000 km. 1996koa. Oso egoera onean. 685 76 22 13.

Gas Gas Contact TXT trialeko motorra salgai. 350 cm3. 1995ekoa. 676 50 63 49.

Mercedes Vito. 110CDI. Combi. 70.000 kilometro. Egoeran onean. Prezio ona. 616 81 15 96.

Peugeot 206 XRD 1.9 Diesel autoa salgai. 70 zp. 100.000 km. Oso ondo dago. 4.000 euro. 647 43 86 33.

Peugeot 306 XTDT, aluminiozko hagunekin eta atzeko bolarekin. Egoera onean. 3.600 euro. Negoziagarriak. 635 73 75 04.

VW California 2.5 TDI. 150.000 km. Lotarako lekua, sukaldea, hozkailua, Nafarroako matrikula. 678 34 28 73.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Errepideko bizikleta salgai. Orbea. 50eko koadroa. Egoera onean. 616 00 34 29.

Inprimagailua. Epson Stil. LQ 300. ESC P2. Orratzekin inprimatzen du. Prezioa adostuko dugu. 616 15 63 73.

Izozkailua salgai. Ekron, berri-berria, 5 kaxoi, 145 euro. 678 82 29 95.

Logela bateko altzariak: armairua eta 90 cm-ko bi ohe prezio onean salgai. 676 61 70 55 edo 659 76 06 72.

Ordenagailua. 486. 100Mh. 36Mb. 1.5Gb. Prezioa adostuko dugu. 616 15 63 73.

Osintxuko frontoian astelehenero 21:00etatik 22:00etara jokatzeari uzteko asmoa daukagu. Ordu hori hartu nahiko bazenute, deitu. 686 98 73 59.

Skate taula. Brasildik ekarritako skate taula salgai. 619 83 79 51.

803. EMAN

Autoan erabiltzeko haurrendako (18 kilora artekoa) aulkia oparitzen dut. 627 64 91 58.

806. GALDU

Eguzkitako betaurreko graduatu beltzak galdu nituen Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian, maiatzaren 22an. Aurkitzen dituenari ordainsaria emango diot. 943 71 50 76.

Urrezko eskumuturra galdu nuen Mondragones kalean, egiten dabiltzan lanen ondoko pasabidean, maiatzaren 20an. Eskumuturrean Felisa izena jartzen du. Aurkitzen duenari ordainsaria emango diot. 943 79 48 41.

Garbi S.L.
PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

Mantentze-lanetarako laguntzailea
Eskakizunak:
- Euskaraz zuzentasunez hitzegin eta idazteko gai izatea.
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoetako teknikari titulua izatea.
- Orokorrak diren mantentze-lanetan eskarmentua izatea.
- Autoa gidatzeko baimena izatea.
- Debagoienean bizitzea.
Eskaintzen dena:
Hasiera batean, iraupen jakineko lan-kontratua eskainiko da nahiz etalanpostu honek gerora begira behin-betiko izaera izan dezakeen.
Interesa daukazuenok, bidali zuen Curriculum Vitaea helbide honetara ekainaren 10a baino lehen
Arizmendi, Koop.E.
Pertsonal Arloko arduraduna
Larrin plaza, 1
20550 – Aretxabaleta
www.arizmendi.ikastola.net
Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

eskoriatzako udala
LAN ESKAINTZA IRAGARKIA
Eskoriatzako Udalak administrari laguntzaile bat behar du (aldi baterako)
Oinarriak aztertu nahi dituen edonork Eskoriatzako udaletxearen bulego orokorrean eskuratu ahal izango ditu, herritarrentzako ordutegian.
Eskariak aurkezteko azkeneko eguna: 2005eko ekainaren 15a.
Eskoriatza, 2005eko maiatzaren 27a.
ALKATEA

C&C LLONGUERAS AKADEMIA
Ile-apaingintza eta estetika irakaskuntza zentroa
Matrikula zabalik!
Aurrena, eta zugandik gertu!
Euskal Herriko irakaskuntza zentro bakarra!
C&C Llongueras diploma ofiziala
Titulo ofiziala (3. maila) Erresuma Batuan
Nazioarteko lan-poltsa
Olagibel kalea 61, behea. GASTEIZ.
Tel.: 945 12 03 60 • Posta-e: ces-llongueras@ya.com

Sentsazioen askatasuna
Sofa edo besaulki bat erosi baino lehen, Stressless® bat proba ezazu. Plus Sistema™ esklusiboari esker, Stressless® sofa eta besaulkiek mugimendu askatasun paregabea eskaintzen dizute. Erabateko konforta da, eta kontzesionarioan duzu zain... Ez beste inon. Probatzera etor zaitez zure kontzesionariora, eta konforta inoiz baino eskura errazagoa dela ohartuko zara.
Stressless® EKORNES®
www.ekornes.es
Sofak eta besaulkiak
Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24



Oscar Torres eta **Ainara Valdes** bihar, ekainak 4, ezkonduko dira Zigorrolako San Isidro elizan. Etxe-Aundi jatetxean egingo dute gero bazkaria, eta eztei bidaian Punta Canara joango dira. Zorionak, lagunen partetik.



Oihana Casais eta **Igor Olabe** oñatiarrak ekainaren 4an ezkonduko dira Arantzazuko elizan, 13:00etan. Bazkaria Zelai-Zabalen egingo dute. Zorionak eta egun ona pasa, familiaren partetik.

Idoia Muñoz eta **Jose de Latorre** arrasatearrak bihar ezkonduko dira Arrasateko San Juan parrokian, 12:00etan. Gero, senide eta lagunek Gasteizko Urrunaga jatetxean ospatuko dute. Etxekoen eta lagunen partetik, zorionak eta ondo pasa Mexikon.

Carmen Loidi eta **Luis Atorrasagasti** ekainaren 8an ezkondu ziren, orain dela 50 urte, Elgetako parrokian, eta familia giroan ospatu zuten. Urrezko ezteiak ospatzen dituzten honetan, familiak zoriondu egin nahi ditu. Zorionak, bikote!

Oskar eta **Naiara** bergararrak bihar, ekainak 4, ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Ondoren, ezkon bidaian Mexikoko Maia Erriberara joango dira tripaz gora egotera. Ondo pasa eguna eta zorionak, bikote!

Ines Metola eta **David Garcia** ezkondu zirela 50 urte beteko dira datorren ekainaren 11n. Hori dela eta, meza izango dute Garagartzako parrokian, 13:00etan. Gero, ospatzeko Uxarte jatetxera joango dira senideekin batera. Zorionak, bikote.

ESKER ONA

Bernardo Iñarra Orueta

Bergaran hil zen 2005eko maiatzaren 25ean, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko ekainaren 3an.

URTEURRENA

Bernardina Caballero Caballero

Juan Fernandezen alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 5ean, 11:30ean, Antzuolako parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

Jose Luis Atxaga Romaratezabala

Aretxabaletan hil zen 2005eko maiatzaren 29an, 64 urte zituela.

Basoa ixilik dago
basoko jauna joan delako,
baina berak landatutako adaxkak
egingo dira zuhaitz,
egingo dira baso.

Antzuolako ilobak.
Antzuolan, 2005eko ekainaren 3an.

ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

1, Arkitektoa
1, Kirol teknikaria
1, Prebentzio eta gizarteratzeko teknikaria
1, Saneamendu eta mantenuko teknikaria
2, Erizainak
1, Aisialdirako monitorea
1, Aukeako mantenuko operarioa

Oinarri-arauak: Pertsonal sailean eta web orrian
www.arrasate-mondragon.org

Izena emateko epea: maiatzaren 25etik ekainaren 13ra arte (biak barne)

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal saila

Hemen
GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

TXANTXIKU IKASTOLA

TXANTXIKU IKASTOLA Kooperatiba Elkartea

OHIKO BATZAR NAGUSIA

EGUNA: 2005eko ekainaren 21a, asteartea
ORDUA: 18:00etan lehen deialdia eta 18:30ean bigarrena
TOKIA: Ikastolako aretoa (San Juan kalea 1)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren txostena irakurri eta, hala badagokio, onestea.
2. Kudeaketa txostena.
3. 2004. urteko kontuak eta 2005. urteko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
4. 2004. urteko galeren egozpena onartzea.
5. HEZIBERRI Elkartearen desegitea.
6. Kontseilu Errektoreko eta Zaintza batzordeko kide berriak aukeratzea.
7. Akta onartzeko bi kide izendatzea.
8. Eskariak eta galderak.

Oñatin, 2005eko ekainaren 3an

ELHUYAR aholkularitza
Parte-hartzean eta talde-lanean oinarritutako metodologia
- Euskara-planak enpresa eta erakundeetan
- Esparruka landutako euskara-planak udalerrietan: lan/mundua, aisialdia, merkataritza...
- Gogoetak, plan estrategikoak eta erakundeen antolamendua hobetzeko prozesuak

www.elhuyaraholkularitza.net
aholkularitza@elhuyar.com
Tel. 943 372052 (Usurbil) 94 4668816 (Durango)

NUEVA IMAGEN
IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA
A.N.C.E.P.E.-REN AKADEMIA HOMOLOGATUA
MATRIKULA EPEA ZABALIK
Maila goreneko diplomatura
GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Txokolatearen tratamenduak aurre egiten dio zelulitisari.

Zelulitisa aztergai

Zelulitisa emakumezkoen arazo izan ohi da (gure sistema hormonalaren ondorioz); ehunean dauden adipozitoetan (koipez betetzen diren zelulak) koipe partikula txikien, ur-hondakinen eta hondakin organikoen biltegiratzea gertatzen da. Hasieran ez da antzematen aldaketarik azalean; kontua da elikadura nahasia, koipe saturatu gehiegi, karbohidrato errefinatu asko eta ur gutxi edateak zelulitisa agertzen laguntzen duela. Horiei guztiei gehitzen badizkiegu tabakoa, alkohola duten edariak, lanpostuan jarrita lan egitea edo lanpostuan zutik eta geldi lan egitea (egun guztia jarrita edo egun guztia zutik, ezertarako mugitu gabe), arazoa benetan larria bihurtzen dela.

Nerbio-sistemak ere badu eragina; izan ere, normalean pertsona konkretu hauek jateko ohitura desegokiak izaten dituzte. Hauek dira eraginak: oso azkar jatea edo ez mastekatzea, eta horren ondorioz digestio geldoak eta astunak edukitzea edo digestio azkarrak izatea; azken horrek, gainera, ZELULITISARENTZAT trastorno metaboliko oso negatiboak dakartza. Odolaren zirkulazio txarrak ere badu eragina arazo horretan.

Badago aukerarik zelulitisa gutxitzeko edo desagertzeko?

Bai, zuk nahi baduzu, egin daiteke.

Lehen pausoa ohiturak aldatzea da, elikadura osasuntsua egitea oso garrantzitsua da.

Ondoren, tratamendu fisikoestetiko egokia aukeratuko dugu, hori baita gakoa tratamenduak emaitza onak eman dezan.

Momentuan dauden ZELULITISAREN AURKAKO tratamendurik aurreratuenak:

- Zauri txikiko terapia subdermikoa (vacuterapia)
- Hipertemia
- Termolisia
- Korronte diferentzialak
- Ultrasoinuak
- Zauri txikiko sistemak
- Lokatzezko bainuak
- Kafearen tratamendua
- Mahatsaren tratamendua
- Txokolatearen tratamendua
- Algen tratamendua

Gehiago daude, baina aurrerago aipatuko ditugu

Maria Isabel Hurtado
Dermatizista

HITZGEZIDUNAK

Luma



		Irabazi, gainditu / Latorrizko ontziak		Zaflada, masailakoa / Nondar atzizkia		Narrasti mota
		*Izena / Axolagabe				
Langileen multzoa / Trenaren orga		Maiz, askotan / Goi-mailako, bikain				
				Amerizioa / Usaintsu		
Nortasuna hartu / *Deitura					Area / Antza, forma	
Arnas ezak hil / Ilargiaren argi			Nori atzizkia / Iruteko tresna			Jangai gozoa
Erbioaren ikurra / Ez eme		Ontasunez / Nafarroako urtegia				
	Erdi hitz-elkartetan / Euskal fonema				Tona / Kriptona	
Era itsusian / Ehun mota						
			Oinarrizko edaria			

BILABILA7

UMOREGIROAN

Kike Amonarriz

GLOBOAN
Montgolfiere motako globo batean aireratu da Pierre Parisen, Europa osoa zeharkatzeko asmotan. Bigarren eguneko, ordea, galduta dabilela konturatu da. Mapa astindu eta biraoka jardun arren, arazoak ez du irtenbiderik: orientazioa guztiz galdu du.

Non dabilen jakin nahian, altuera galdu eta lur aldera inguratu da. Kasualitatez, Tolosa aldameneko Uzturre mendi gainean egokitu da. Tontorrean, gizon bat dago eta zera galdetu dio globotik:

– Barkatu, baina, esango al zenidake zehatz-mehatz non nagoen?

Eta tolosarrak oihuka erantzun:

– Bai, noski! Montgolfiere batean!

POLIZIA-ETXEAN
Morroi hau herri bateko Ertzaintzaren polizia-etxera sartu da, lapurreta salaketa jartzeko asmoz.

Harrera gelara sartu da eta inor ez. Ezker-eskuin begiratu du baina ez du inor ikusten. Denbora pixka bat zain egon eta inor ez dela agertzen ikusi ondoren, urduri jartzen hasi da.

Halako batean, batera eta bestera begira ari dela, paretatik zintzilik alarma jotzeko botoia ikusi du. Sakatu edo ez sakatu zalantzan dago, baina azkenean jotzea erabaki du.

Handik bi minutura, polizia-etxeko ate nagusia zabaldu eta nor azaldu da?:

– Pareko tabernako zerbitzaria, erretiluan sei garagardo dituela!

SOLUZIOAK

A	R	U	●	A	Z	A	G
I	K	S	U	S	T	I	●
T	●	T	R	E	●	R	A
Z	E	N	O	●	R	E	●
E	T	I	G	R	A	L	I
●	I	R	●	O	T	I	●
N	E	R	U	G	I	G	E
A	●	U	T	R	O	N	●
M	A	●	I	O	G	A	B
I	R	R	A	S	●	L	●
A	F	A	R	●			
K	A	T	L	●			
●	Z	●	G	●			



ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

ASPEren ESKAINTZA BEREZIA

'Asteleheneko Goienkaria'-ko irakurleendako

Hurrengo Asteleheneko Goienkaria-n, **bete kupoia** eta eskaria zeure etxean jasoko duzu, abantailekin:
%30eko beherapena eta oparia pertsonalizatzeko aukera!

PILOTA

- Aspeko pilotari batek sinatua.
- Narruzkoa.

30€*
pilota bat

KAMISETA

- Zure izenarekin edo ASPEko pilotari batenarekin.

40 €*

PRAKAK

35 €*

* Produktuen prezioetan deskontua aplikatuta dago.

aspepelota.com

ASPEko pilotariak:
Apeztegia, Arizmendi, Arroyoll, Auxkin, Baleztena, Barriola, Berna, Berraondo, Capellan, Chafee, Del Rey, Elkoro, Etxaniz, Eugi, Eulate, Galarza VI, Galarza V, Gonzalez, Goñi III, Lasa III, Laskurain, Mtnez. de Irujo, Nalda III, Pascual, Titin III, Urberuaga, Xala, Zubieta.

Harpidetu zaitez edo erosi Asteleheneko Goienkaria kioskoan eta...

ASPEko produktuak
%30eko deskontuarekin eta pertsonalizatuta
lortu ahal izango dituzu.

ZOZKETAK

Zozketan parte hartzeko baldintzak:
- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:
Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, **aste bukaera osoa**

045 zozketa: maiatzaren 30a

ZORIONAK IRABAZLEEI!
Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, zorionak!

Bi sari FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi sari Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi gonbidapen).
- Erreki erretegia (Bergara)
- Aloña Mendi kirol elkartea (Oñati)

MOKOGORRI, 6 urtetik gorakoenendako puzzlea.
- Iñaki Arrieta (Bergara)

ISTILU etxeko mutilendako kamiseta.
- Bigen de Pedro (Bergara)

046 zozketarako sariak



- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).
- Elgetako **ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN**, ekainaren 11n, **TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON** junior ikusteko bi sari (saridun bakoitzarendako bi gonbidapen).
- **MOKOGORRI**, 6 urtetik gorakoendako puzzle bat.

‘Harmailatik’

ASTELEHENA 6/ **21:30 eta 23:00**

Debagoieneko IV. Triatloi probaren gaineko laburpena

Zapatuan egingo dute Debagoieneko IV. Triatloi proba. Aurten, Olatz Rementeriaren memoriala izango da, eta lehenengo aldiz, umeendako triatloia ere egingo dute. Probaren gaineko laburpena *Harmailatik* saioan izango duzue astelehenean.

‘Debarri’

MARTITZENA 7 / **21:00 eta 22:30**

Aramaioko alkate Mertxe Mondragoni elkarrizketa

Aramaioren txanda da oraingoan. Hala, martitzenean, Aramaioko kontuak izango dituzte berbagai Alberto Gorritibereak zuzentzen eta aurkezten duen *Debarri* saioan. Ikusleek aukera izango dute herriko alkate Mertxe Mondragoni galderak egiteko.

‘Behazulo’

EGUENA 9 / **21:30 eta 23:00**

Debagoiena Euskal Herriko bilgune Mundumira jaialdian

Mundumira munduko kulturen eta musikaren jaialdia Debagoienean ospatuko dute aurten. *Behazulo* saioak aurtengorako gertatu dituzten ekitaldien berri eskainiko dizue, *Euskal Herria* aldizkariko kideen eskutik.



‘Berriak’

EGUNERO / ***ikus beheko taula**

Gertuko informazioa, gertuko albiste saioetan

Albistegiak dira GOITBko ardatz. Eguerdietan, *Berriak aurrerapena* duzue Julen Iriondoren eskutik. Arratsaldeko zortzietan, berriz, Deiane Arrietak egunak emandako guztiaren berri eskainiko dizue, *Berriak* tartean.

TELEBERRIAK

Tele5 zakua betetzen ari da, 1 Formulari eta ‘Alonsomania’-ri esker

Bete betean asmatu du Tele5 kateak 1 Formulako lasterketen zuzeneko emanaldiekin. Izan ere, aurten 10 milioi euro fakturatuko ditu publizitatean, iaz baino %57 gehiago. Hazkunde horren arrazoi nagusia da Fernando Alonsoren denboraldi bikaina eta hainbat zale eta ikus-entzuleren artean piztu den jakin mina. Automobilismoko Sari Nagusiak jarraitzeko, 6 milioi ikus-entzulek pizten du Tele5 aurten, une horretan telebista ikusten dihardutenen %43. Bere garaian Tourrarekin eta Indurainekin gertatu zena gertatzen ari da orain pilotu asturiarrarekin, eta Tele5 kateko nagusiak pozarren daude.

ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Ekainaren 3tik 9ra

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA 3	ZAPATUA 4	DOMEKA 5	ASTELEHENA 6	MARTITZENA 7	EGUAZTENA 8	EGUENA 9
13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Behazulo** 15:00 **Chiloé** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Ilunpean** 21:30 **Eguzki lore:** Tafallatik Uxuera. Hamabi 22:00 **Berriak** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Eguzki lore** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:05 **Behazulo** 11:35 **Baneki** 12:00 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 13:10 **Zegama-Aizkorri mendi maratoia** 13:40 **Txirrindularitza:** Gervais Memorial 14:00 **Ilunpean** 14:30 **Chiloé** 15:00 **Filma** 16:05 **Eguzki lore** 16:30 **Jaun ta jabe** 17:05 **Klip@** 17:20 **Behazulo** 17:50 **Iparraldea Oñatin** 18:20 **Jaiak 2005:** Gorpuzti Eguna 18:55 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla eta Lazkao Txiki 20:00 **Chiloé** 20:45 **Klip@**	11:05 **Filma** 12:00 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 12:50 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 13:10 **Iparraldea Oñatin** 13:40 **Jaiak 2005:** Gorpuzti Eguna 14:00 **Eguzki lore** 15:00 **Filma** 16:00 **Chiloé** 16:30 **Marrazki bizidunak** 17:45 **Klip@** 18:00 **Baneki** 18:30 **Jaun ta jabe** 19:00 **Ilunpean** 19:30 **Marrazki bizidunak** 20:15 **Iparraldea Oñatin** 20:40 **Jaiak 2005** 21:00 **Txirrindularitza:** Gervais Memoriala	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Ilunpean** 15:00 **Eguzki lore** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Baneki** 21:30 **Harmailatik:** Debagoieneko Triatloia 22:00 **Berriak** 22:30 **Txirrindularitza:** Gervais Memoriala 23:00 **Harmailatik** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Harmailatik** 15:00 **Txirrindularitza** Gervais Memoriala 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Debarri:** Aramaio 22:00 **Berriak** 22:30 **Debarri:** Aramaio 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Debarri:** Aramaio 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Chiloé** Thailandia Siameko kanalak 21:30 **Jaun ta jabe** 22:00 **Berriak** 22:30 **Chiloé** 23:00 **Jaun ta jabe** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Chiloé** 15:00 **Jaun ta jabe** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Iratxo Magikoa 21:00 **Baneki** 21:30 **Behazulo** 22:00 **Berriak** 22:30 **Debagoieneko IV. Triatloia** 23:00 **Behazulo** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
21:30 **Eguzki lore**	13:10 **Aizkorriko maratoia**	20:15 **Iparraldea Oñatin**	21:30 **Triatloia**	21:00 **Debarri: Aramaio**	21:30 **Chiloé**	21:30 **Behazulo**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Lan egiteko benetako aukera

ARIZMENDI IKASTOLAKO LANBIDE HEZIKETA

aurrematrikula zaitez

ekainaren 1etik 8ra




ERDI MAILAKO ZIKLOAK

— Erizaintzarako Laguntza Osagarriak
— Arreta Soziosanitarioa

GOI MAILAKO ZIKLOAK

— Ingurumen Kimika
— Analisia eta Kontrola
— Eraikuntzako Proiektuen Garapena eta Aplikazioa
— Obren eta Planen Burutzapena
— Kirolaren eta Ekintza Fisikoaren Animazioa

Informa zaitez!
902 11 20 25

www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

ekainaren 3tik 5era

BIOTERRA 2005

PRODUKTU EKOLOGIKO, KUDEAKETA EKOLOGIKO ETA INGURUMENAREN AZOKA

Bioterra 2005 azokan egongo dira ordezkaturik sektore ugari, ekologia esparruak egiten duen eskaintza zabalaren isla izan nahian. Publiko oro nahi profesionalentzako ere, eskaintza ugaria izango da konferentzi eta tailerren aldetik. Programa osoa kontsultatu dezakezue azokaren web horrian: http://bioterra.ficoba.org.

Etor Zaitez Bioterrara!!

FICOBA
Iparralde Hiribidea, 43
20302 IRUN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 66 77 88 - Faxa 943 61 61 64
ficoba@ficoba.org - www.ficoba.org

Babesle:
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua
Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento

irun - hendaia

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2005eko ekainaren 3a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Nerea Urra/ Bertso irakaslea

Eskualdeko zenbat ordezkari egon zineten Villabonan zapatuan egindako Gipuzkoako bertso eskolen egunean? Oñatiko Egoitz Aizpurua eta biok joan ginen, Soraluzeko beste bi lagunekin batera.

Eta zer ikasi zenuten?

Gipuzkoako bertso eskolek elkarren berri izatea eta harremanak sendotzea zen helburua. 150 ume inguru batu ziren.

Ze osasun du hemengo bertso-zaletasunak?

Lehen baino osasun hobea duela iruditzen zait. Badago bertsoak gustukoak dituen eta saioetara joaten den jende kopuru finko bat. Bertso saioa non antolatzen den, nortzuk datozen edo izan duen oihartzunaren arabera, handitu edo txikitu egiten da talde hori.

Euskal Herriko bertso txapelketa aurten dela nabaritzen da?

Baietz uste dut. Abenduran bitartean gehiago nabarituko da, gainera. Gipuzkoakoa edo eskolen artekoa denean ere nabaritzen da, baina Euskal Herrikoak beste maila bat du.

Zenbat ikasle dituzue bertso eskolan?

Arrasaten lau, Aretxabaletan zazpi eta Eskoriatzan bost. Lehenengo urtea da, eta datorrenean ere zabalduko dugu apuntatzeko deia.

Zein da bertso eskolako lehen ikasgaia?

Ez lotsatzea eta zerbait esatea, izkinan isilik ez gelditzea. Lotsagabea izatea beste kontu bat da.

Bertsotan egiteko moduak eta tokiak aldatu egin dira lehendik?

Lehen plazetan egiten zuten askotan eta orain baita areto edo tabernetan ere. Bertsoak ez du eszenatoki finkorik, edozein tokitara moldatzen da bertso saioa.

Bertsolari kopuru zehatzik behar da saio baterako?

Ez, baina zortzi baino gehiago askotxo dira.

Neurria, doinua ala errima irakasten diezu lehenengo?

Doinua, neurriarekin doalako, eta errima. Baina hirurak elkarrekin doaz.

Bertso hobeak botatzen dira eskuak atzean jarriz gero?

Eskuak aurrean edukiz eta hankak juntu, gehiago nabaritzen da urduritasuna. Azalpen hori ematen diet nik, behintzat, ikasleei.

Bertso trama da orain modan dagoena?

Bertsotan egiteko beste modu bat da, besterik gabe. Izan ere, hainbat modu probatzen ari dira, eta trama da horietako bat.

Uda da bertsolariarendako denboraldi ona, ezta?

Jaiak izaten dira nonnahi eta saio asko izaten dituzte, bai. Uda da euren goi-denboraldia.

Argazkirako mikrofono aurrean jarri zara. Norbaitzuek barre egingo dutela diozu.

Hiruzpalau aldiz bakarrik jarri naiz mikrofono aurrean. Ez naiz eroso sentitzen, behin gaizki pasa nuen, eta ez naiz pauso hori ematera ausartzen.

“Izkinan isilik ez gelditzea eta ez lotsatzea da bertso eskolako lehen ikasgaia”

“Lehen plazetan egiten zuten bertsotan, eta orain, baita areto edo tabernetan ere; bertsoak ez du eszenatoki finkorik”

“Doinua, neurria eta errima elkarrekin irakasten ditugu, hirurak batera doaz eta”

► *Arrasate/ 23 urte / Leintz bertso eskolan dihardu*

PIPERRAUTSA

Eraiki

Arrasaten bi mila etxebizitzatik gora eraikiko da hurrengo urteetan, Oñatin milatik gora, Debagoiena osoan bost mila baino gehiago... Datu deigarriak eman zituen, aurreko GOIENKARIAn etxebizitzen gehigarriak.

Deigarria da horrenbeste etxe berri eraikitzea, biztanle kopuruak ez duenean gora egiten. Etxe berrien zati batek ordezkatuko ditu botatako zaharrak, baina gehienak izango dira berri-berriak, eta handitu egingo dute etxebizitzen parkea. Nork erosiko ditu horiek?

Ze, ibarraren garapenak ez du ekarri populazioaren hazkunderik, eta autopistak erraztu egingo du joan-etorria. Beraz, areagotu egin daiteke hemen lan egin eta kanpoan bizitzeko joera. Alferrik egingo dira bost mila etxebizitza berri ez bada erakargarriago bihurtzen ibarrean bizitzea kanpokoentzat.

Deigarri egin zait babes ofizial/prezio mugatukoen kopuru urria, (1.400), eta bi heren baino gehiago libreak izatea. Kontuak eginda, metro koadro librea ordaintzen bada 3.000 euro, irteten da 1.000 milioi euro inguru gastatuko direla etxe libreetan, eta beste 100 milioitik gora babestuetan. Kopuru horien ia %10 joango da zerga, notaritza eta erregistrotan. Sekulako pagotxa zenbaitentzat!

Eta deigarri egin zait ez aipatzea etxebizitza txikiak. Barre egin zaie 30 metroko apartamentuei, baina soluzio ona da eskariaren zati bat asetzeko eta presioa/prezioa jaisteko.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa